

## Atutxa eta Olasagastiren arteko apustua zezeilean izango da

10. orrialdea

## Lemoako Kirol Astea

Zemendiaren 16tik 22ra, Kirol Astea antolatu dabe Lemoan. Kirola ikusteko, praktiketako eta kirolaren gainean gehiago jakiteko aukerea egongo da astean zehar egongo diran berbaldi, tailer eta erakustaldiak esker. Futbolak, peloteak, mendiak, zumbak, saskibaloiak eta herri kirolak tartetxo bat izango dabe aste honetan. **11. orrialdea**



## Zu bai zu Lehiaketako casting-etarako izen emotea zabalik dago

12. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 240

2015eko zemendiaren 17a  
hamabostekaria  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

## Indarkeriagaz amaituteko ekitaldiak

Zemendiaren 25aren inguruan, ekitaldi ugari antolatu ditue Arratian andren kontrako indarkeriagaz amaituteko. Arratian, 11 andra atendidu ditu Mankomunidadeak 2015ean indarkeria sexistea dala-eta.

**A**ldarrikapena izango da nagusi zemendiaren 25ean Andrankanako Indarkeriagaz amaituteko Nazinoarteko Egunean. Arratia mailako alkarretaratzea egingo da egun horretan, arrastiko zazpiretan Igorren. Arantzazun eta Artean be konzentrazioak egingo dira.

Hilaren 18an hasita eta zemendia amaitu arte, eskualdeko zinea, antzerkia, musikea, eta literatura morez jantziko dira, talde feministak, andra taldeak eta erakundeak eskualdeko

herri guztietan antolatutako ekintzai esker.

Martxa Morea Igorretik Bediara joango da aurten hilaren 22an, eta 27an Zeanurin Beldur Barik Arratia Lehiaketako sari banaketea izango da. Han Arratiako gaztetxoak bardin-tasunaren alde egindako ikus-entzunezko onenak sarituko dira.

Arratian, indarkeria sexistea jasandako 11 andra atendidu ditu Mankomunidadeak 2015eko urri lehenengoaren 30era arte.

**8. eta 9. orrialdeak**



### ARRATIA

#### Santa Zezilia, musikarien eguna




Kontzertu eta musika ekitaldi ugari dagoz programauta Santa Zezilia, musikarien zaindariaren egunaren inguruan. Arratiako Musika Eskoleak eta Luis Iruarizaga Abesbatzak alkarregaz emonaldiak eskeiniko dabez hilaren 19an Arantzazun, 20an Artean eta 28an Igorren.

Artean Azaro Musikalaren barruan musika mota desbardineta kontzertuak dagoz programauta. **5. orrialdea**

### AREATZA

#### Udalak aurrekontuak prestatzeko arloko batzarrak deitu ditu

2016ko aurrekontuak prestatzeko herritarrak batzarrak egiten hasiko da Areatzako Udala zemendiaren 17an, eta abenduan zarratuta egongo dira aurrekontuak. Arloko batzar bi eta batzar orokor bi egongo dira kontuak plenora eroan aurretik. Jenteagaz kontaktu zuzena izan eta herria inpliketea gura dabela adierazo deutso Asier Garcia alkateak BEGITUARI. **5. orrialdea**



### ZEBERIO

#### Bertako Produktuen XVII. Azokea

Zemendiaren 29an, beste produktu batzuen artean, baserriko produktuak, artisautza, egurrezkoak, bitxiak eta ibilgailu elektrikoak erakutsi eta salduko dira Bertako Produktuen XVII. Azokan. Batez be, Bizkaikoak izango dira produktuak.

Azokeagaz batera Euskerearen Eguna ospatuko dabe. Horretarako frontoian, antxinako jolasak ekarriko dabez gogora eta umeentzako tailerrak egongo dira. **7. orrialdea**

## Arratiako altxorra

Jolastuz ikasi  
**Oka + tribial + Arratia = Arratiako altxorra**  
Gabonetarako opari orijinala

Erosteko

Artea: Herriko Taberna. Igorre: Estankoa eta Zazpi Haizetara. Zeanuri: Itsasne Txutxeak. Areatza: Gauzak opari denda. Bedia: Mari Cruz Janari denda Lemoa: Foto Tibur eta Marigorringo Txutxeak. Dima: Axlora Taberna.

## ARRATIA ZURI-BALTZEAN

## ARRATIA INGURURA ETORRIAK

Migrainoak entzute handikoak bihurtu dira atzen urtean, batez be Asia eta Afrikako etorkinak egiten dabizanak. Lehenago be egon ziran herrien arteko joan-etorriak. Guk, oraingoan, Arratia ingurura joko dogu, 1750eko urtean hasi eta XIX. mendean zehar heldu ziran aitatu. Urteak joan, urteak etorri hainbat izan ziran inguruko lurraldeetatik Arratiara ailegau ziranak. Hona hemen orduko batzuen abizenak: Arabatik, Camara (Lemoa eta Zeanurira), Garcia de Cortazar (Dima, Zeanuri eta Zeberiora), Fernandez de Larrinoa (Zeanurira), Letona (Ubide eta Zeanurira), Mendibil (Zeanurira); Gipuzkoatik, Eizagirre (Areatza), Arizmendi (Zeanuri eta Areatza), Ausmendi/

Auzmendi, Sorazu eta Zubizarreta (Dimara), Azurmendi (Dimako Artaunera), "Kiputz" gatxizenaz ezagutuak (Dimako Indusira), Belamendia (Dima eta Bediara), Anzola (Dima eta Igorrera), Arruti (Lemoara), Amondarain/Amundarain, Egaña eta Manterola (Zeanurira), Agirrezabala eta Arza (Zeanuriko Ipiñaburura), Erauzkin (Zeanuriko Zubizabalera), Aramendi, Ayerdi eta Beldarrain (Zeberiora); Kantabriatik: Canales (Arteara), Madrazo (Arantzazu eta Igorrera); eta beste lurralde batzuetatik, Cristobal (Igorrera), Del Barrio (Arteara)...

Biztanle barriak etorri ziran urteetan Arratiako lur onenak okupata egon ziran lez, paraje altuetan baino ez ebezan aurkitu bizi ahal

izateko lekuak. Beraz, baseritarrak izan ziran, eta nekazariak baino gehiago pastoreak edo artzainak; besteak beste, familia honeek: Agirrezabala, Amondarain, Azurmendi, Belamendia, Canales, Erauzkin... Beste batzuk, ostera, ibarretan sortu ziran plaza barrietan jarri ziran bizituen: Cristobal, Eizagirre, Fernandez de Larrinoa, Manterola, Mendibil... Euren komertzioan, dendakaz, artzautzan edo ofizioetan egin eben behar. Beste familia batzuk, azkenez, Arratia ingurura heldu eta bertan finkatu aurretik, Bizkaiko herrietatik egon ziran: Zornotzan eta Durangon, esate baterako. Etorkin haren bizibidea ibiltaria zalako, herriz herri edota etxez etxe joaten ziran ezta moduko produktuak saltzean; kasu bat, Kantabriako Pas haraneko "pasiegu/pasigeru" ena da. Etorren ziranak familia gazteak

izaten ziran: batzuetan, anaiak eta neba-arrebak; gehienetan, barriz, ezkontuta eta ume txikiakaz. Igoera sozial eta ekonomikoa lortu eben batzuek orduko Arratiako gizartean, zeinda Zubizarreta sendiaren moduan. Ikusi daigun: zubizarretarrak Gipuzkoatik Dima aldera etorritako gizon baten ondorengoak ziran: bata, Miguel semea eta, bestea, Ignacio ilobea. Miguel Zubizarreta Zuberu, Diman jaioa 1888ko urtean, izan zan Igorreko Elexalde auzoan dagoan txalet dotorearen eragilea, estilo arkitektoniko garaikidean egina, XX. mendean lehen hamarkadetan modan egoan eredu eklektikoan, hain zuzen be (argazkian ikusgai). Ignacio Zubizarreta Ipiña, Igorren jaioa 1923ko urtean, estimu handiko medikua herrian: Igorreko eskoleak bere izena hartu dau. Gazterik hil zan, 40 urte bete

barik ebazanean. Haren omenez, 1963. urtean, Joaquin Lucarini artista ospetsuari enkargau jakon osagilearen brontzezko eskultura bat egitea; gaur egun, Udal Plazan dago.

**Angel Larrea Beobide**



**Zubizarreta etxea.**

## TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**

**Zemendiaren 16tik 22ra**

Rodriguez Martinez, Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

**Zemendiaren 23tik 29ra**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara**

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

**Zemendiaren 30etik abenduaren 6ra**

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Trenak**

Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265**

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Arriorriaga**

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

**Zeberio-Arriorriaga**

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arriorriaga-Zeberio-Artea**

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Arriorriaga-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union\* 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**


Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

**Babesleak:**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tiradea:** 6.800 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Santa Zeziliako kontzertuak

Santa Zezilia dala-eta, kontzertu eder bi izango doguz Arratian. Lehenengo zemendiaren 20an izango da, Arteako eleizan, arrastiko 19:30ean. Bertan hiru taldek hartuko dabe parte: Arteako eskolako umeak; Arratia Musika Eskolako ikasleak eta Luis Iruarrizaga Abesbatzak. Bigarren, zemendiaren 28an izango da Igorreko Lasarte Aretoan, arrastiko 19:30ean. Honetan be hiru talde izango dira: Igorreko ludotekako umeak, musika eskolako ikasleak eta Luis Iruarrizaga Abesbatza.

Aukera parebakoa daukagu, beraz, abesti ederrak entzunez gozatu teko.

Luis Iruarrizaga Abesbatzak abeslari barriak onartuko leukez, betikoak zahartuz be badoaz eta. Horregaitik abestea gustuko badozu, animau! Martitzen eta eguazten guztietan Igorreko Kultur Etxean izango dozu abesbatza. Bertaratu eta apuntatu.

LUIS IRUARRIZAGA ABESBATZA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, berrik eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Txolet



Antoisiin, txonil edo txoleta zera da: edateko edo likidoak eroateko erabilten dan ontzi kirtenduna (txoléta, agoskatuta). Lehenago, gure etxeetan, diru soltua eukiteko lekua be izaten zan; gaur egun, ura edateko erabilten da gehienbat, batez be mendietako iturrietan. Esakera xelebrea be badago berba honi lotua: "Platelean kaka ta txoletan ure!". Haserrealdian, gauzak burutu barik gelditu diranean esaten da.

## ERETXIA

### Lotsea beste aldekoak euki dagiela

**Z**emendi honetan berba asko egin dogu indarkeria sexistaz, eta hainbat urtean edo sekula egin izan dan manifestazio feministarik handiena bizi izan dogu. Zalantza barik, talde feministen arrakastearen erakusgarri izan da; izan be, biolentzia zuztarretik desagerrarazoteko gero eta kontzientzia eta sensibilidade gehiago batzean ditue talde feministak. Dana dala, tamalez, gaur egun oraindino be, hor dagoz diskursoak erabat desitxurutzen dituen eragileak, eta, nire eretxian, gurata egiten dabe, gainera. Esan leiteke ez garea kapaz menperatzaile/menperatu kategoriak apurtzeko; hau da, ezin dogu atzean itxi "edo astindu egiten nabe edo astindu egiten dot" horren azpian dagoan pentsamentu dikotomikoa. Ezin dogu gairiditu desbardintasunak ikusiezineko bihurtu eta existitzen ez diran bardintasunezko errealidadeak eregiten dituan pentsamentu bakar hori; pentsamentu bakar igualitarista hori. Pentsamentu horrek ukatu egiten dau desbardintasuna bera; ukatu egiten dau genero maskulinoa dala -ez gizonak- biolentziaren bidezotasunean edo nagusikerian sozializatzen dana. Zalantza barik, erantzuteko orduan edo pribilegioak defenditzean erakusten dauan gogortasuna bildurraren eragina da, badaiki-eta bere dominazioa atzenetan dagoala. Azken baten, bardintasunari deuskan bildurraren erakusgarria be bada biolentzia matxistea.

Parau gaitez errealidade birtual baten, paralelismo politiko bat eginez, beste diskriminazio mota batez: imajinatu zeinkie heterosexual bat bere diskriminazioa aldarrikatzen edo eskatzen, hain zuzen be, heterosexuala izategaitik? Seguru nago heterosexualtasuna arauzkoa izateak eragin negatiboa daukala danongan, baina LGTBen kolektibokoak



### MAITENA MONROY ROMERO

Aktibista feminista

euren eskubideak eskatzeak ez ditu balio barik ixten heterosexualeen eskubideak; hori planteatzea larregikoa izango litzateke, horixe baino ez zan behar! Ezin leike inork esan, inondik inora, bardin dala heterosexuala izatea edo ez izatea. Ezin leiteke esan homofobiak ez dauka hiltzen, edo herossexual batek LGTBen kolektiboko batek sufridu leikezan jazarpen edo eraso egoera berberak sufridu leikezala. Hori esatea maltzurkeria handi bat izango litzateke.

Erasotzaileak, zuzeneko erasotzaileak, eraso leikie biolentziaz jokatu ahal izateko koltxo ideologiko bat daukielako. Gizarte hau hilketa bat dagoanean baino ez da ikaritzen, baina graziaz onartzen ditu aurrereti sexisten azpian dagozan jokabideak.

Zer gabiliz egiten desbardintasunari aurre egiteko? Zenbat mezu, txiste eta bideo sexista heldzean jakuz telefonoetara?, eta ze erreaziozko daukagu?

Izan be, sexismoa bultzatzen daben ideak ez dira kalterik bakoak, ezpada hurrengo biolentzia-ekintza bultzatzen dabe, hurrengo hilketea. Eta, orain, erabagi beharko dogu ea txiste sexisteari barre egiten jarraituko dogun, edo horreetatik aldunduko garan eta gizarteaz, kuadrilleaz edo geure buruaz lotsatuko garan, ezer ez dogulako egiten edo jokabide horreekaz guztiz toleranteak galarako.

Aktibista feminista eta bakezale lez, justizia sozialeko mundu bat sortzean lagundu gurako neuke, non gatazkak alkarrizketearen, negoziazioaren eta adostasunaren bidez konponduko litzatekezan; non biolentziak ez leuken lekurik izango.

Urrin ikusten da helburu hori sarritan, eta hara heldzeako bide ugari beharko dira, gurutzatu egiten beharko diran bide ugari, biziteko poztasuna mereziduko dauan mundu bat egin ahal izateko, eta ez bizirik irauteko bakarrik.

Eta bideetariko bat erreparazio sozialarena da; biolentzia sexistearen biktimen edo biolentzia horretatik bizirik urten dabenen erreparazio soziala nahitaezkoa da; eta, horretarako, biolentzia hori zuzenean erabili dabenen izen ona baltzitu edo zikindu behar da, zelanbait. Baina, haldanda be, gaur egun, oraindino, andrazko biktimak estigmatizau eta matxisten pribilegioak eta inpunidadea bermatzen dituan gizarte baten bizi gara. Andrak, gizarte honetan, biktima izatetik erantzule izatera pasetan dira, josten "ixten" dabelako, "probokau" egiten dabelako; azken baten, existitzen diralako.

Zuzeneko erasotzaile matxistak, zeharkako erasotzaileak (zeharkakoak be badagoz eta), justifiketan dabena, isiltzen diranak, onartzen dabena... dan-danak, euren ekintzen lotsea onartu behar dabe, eta, holan, aldatzeko ardurea hartu behar dabe, eta ez ekintzai jagokienez bakarrik, ezpada balio sexistetan oinarritutako eskemea aldatu behar dabe.

Eurei toketan jakie lotsea eukitea, eta gizarteak, orokorrean, haren jokabideak estigmatizau behar ditu, sekula gehiago ez dagian inork andra bat eraso, bortxatu edo hil, zergaitik eta andrea izateagaitik.

Lotsea eta, lotseagaz batera, erantzule edo arduradun izateko sentimentua beste aldekoak hartzean hasten diranean, orduan, hein baten, biolentzia sexiste zuztarretik desagerrarazoteko bidea egiten egongo gara.

*\*Erredakzioan itzulia*

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

**IZAN GINAN...**  
**...BAGARA ETA IZANGO GARA**

Errealitateak Batz gaitia

MONDRAGON

## LUMATUTEN

JOSE MARI  
KORTAZARArratiako  
altxorra

Zutabe hau egurra emoteko ei da. Holan dinosta sarritan lagun batek. Nik, gaurkoan, egurra zabaldu beharrean, txaloak zabaldu gura neukez.

Altxor bat da Arratia. Eta altxor bat da joko hau: Arratiako altxorra. Arratian zehar ibiliz, zenbat gauza ez ete dodan ikasi! Lauki baten tranbia hartu dot, eta Arratiako beste baztar batera eroan nau txistu bizian. Hemen, zubitik jausi eta errekeak beste zubi batera naroa bat-batean. Baltzolako koban sartu, bidea galdu... eta non eta Gorbeian agertu! Bai, holakoak joko baten bakarrik gertatu leitekez.

Joko baten, edo ametsetan. Gauzatu dan amets bat izan da joko hau.

Ezinezkoa izango zan jolas hau, altxor hau, gure eskuetan egotea, lagun artean edo familiar jolasteko, hainbat lagunenganduz barik.

Eskerrak Zeanuriko parrokiako

gazteen taldeari, itaunak asmatzen erakutsi daben buruargitasun eta eskuzabaltasunagaitik.

Eskerrak Manu Etxebarria Zerberioiko semeari, emon deuskun laguntza handiagaitik.

Eskerrak Arratiako Udalen Mankomunitadeari eta Artea, Areatza, Bedia, Dima, Lemoa eta Zeanuriko Udalari.

Eskerrak laguntzeari ezetz erantzun deusienai, horrek joko hobetzerara eroan gaitualako.

Eta erantzun ez dabenai? Ba, bigarren edizinoan parte hartzeako aukerea izango dabela esango deutsegu. Beharbada, oraingoan lanpetuegi egon dira. Edo ez dabe proiektuan sinistu.

Jolas hau gure herrietako eskola, liburutegi, ludoteka, katekesi-gela eta etxeetan erabilten bada, danok pozik!

Eta zu, irakurle, gabonetako opariren bat egin beharra badozu, edota joko gustukoa badozu, edo Arratia maite badozu, edo Arratiako aberastasunak harrotasunez zabaldu gura badozuz... eskatu zure herrian. Eskatu, erosi, oparitu eta jokatu.

Hainbeste itaunen artean, nahiz eta arretaz ibili, baleiteke hutsen bat agertzea. Holakorik aurkitu ezker, edo hurrengo edizinoarako itaunen bat proposatu gura badozu, bialdu egiguzu oharra gure webgunera: [www.arratia.tk](http://www.arratia.tk). Eta oraintxe bertan hasita, bigarren edizinoan prepareteari ekingo deusaguz; handitua eta hobetua, jakina.

## ZERTZEAN



## ILLART GUMUZIO

## Gaia jarrita: "Titularrak"

1

Titular asko azkenaldian eguneroko notizi gerrak, kirolak, politika ta ekonomiako krisi mundua txarto dabileneko barri txar edo itsusi betaurrekoak jarrita ere ezin hobeto ikusi.

2

Bariku gauzez Parisko hilek oihu eginez honaino ta erruduntzat botaten dabez sinismen zein debozino. Mendebaldetik hango gerratan dauenez hainbat enpeino le(he)ndik hilketa gehiago dagoz Parisko hilketak baino.

3

Katalunia ta katalanak dabiz bidea egiten Madrilen barriz auzitegian bidea nahi dabe eten demokrazia faltsua doa amaitan *deja vu* baten Tejerorekin Parlament-ean "se sienten coño!" esaten.

4

Olasagastik txapeldunari apustuagatik galde eta Atutxa Kantabrikora ez zanez joan en balde adostasuna lortu zaurien orain ezin egin alde. Egurre Aitzol! Arratiarrok gagoz eta zure alde!

5

Kortxoenean eraispenagaz sortuz kriston astrapala jabeak heldu ziren ilegal bota nahian berehala ezer egin ez dauen udalak deko lelo ideala: Kapitalaren kultura da, ez kulturaren kapitala.

6

Arratien be gazteok gabiz bidea eiten apurka Kiñu okupau zala bi urte ospatzeko da Rokupa azaroaren hogeta bata euki ondo apuntauta danok Igorre okupatzera zauzie gonbidatuta.

## BEGI TXINDORRA

Urtero lez, pasa dan zapatuan, zemendiaren 7an, 95-96 denporaldiko Arratia Futbol Taldeko jokalariai barriz alkartu ziran bazkaria egiteko Eubako Kanbio jatetxean. Aurtengoa berezia izan da, 20. urteurrena ospatu dalako. Gogoratu behar da, talde hau dala Arratia Futbol Taldeko historian 3. mailara igo dan talde bakarra. Denporaldi haretan Jose Luis Mendilibar, Kike Gojenola eta Balen Esnaolaren agindupean ibilitakoak honakoak ziran: Ispizua eta Pedro Gallego atezain, Atutxa, Peti, Rueda, Iker Larrabetzu, Lander, Etor, Luis Prieto, Aierdi eta Sergio Martinez atzelariak, Zautua, Lutxi, Jorge Intxaurre, Gurtubai, Atxa, Jon Ozerin, Josu Iglesias eta Marin erdilari moduan eta Aiert Derteano, David Ferreras, Unai Ibarrondo aurrelari lanetan. Fisio lanetan Pedro Garai ibili zan. Ezin ahaztu zuzendaritza taldekoak be: Iñaki Pujana, Mendiguren, Emilio eta Fermin Mena beste hainbat lagunenganduz artean. Zendutako Aitor Ezkerra eta Eulalio Parra be gogoratu beharrekoak. Urte askotan jarraitu dagiala. AUPA ARRATIA!

**Ekaitz Aierdi**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odoztorgia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalejatu Zerbaita 100  
R.P.S. 21/06

**OPEL**  
**Ibaigane, S. Coop. Ltda.**  
Eskuz/105, 15  
48330 LEMOA (Bizkaia)  
Tels: 631 33 30 - 631 31 31  
Fax: 631 36 15

**24h**  
**EGUNEKO OGIA**  
vending pan  
**IGORRE**  
Lehenakari Agutse

## ARTEA

# Lanbideren Enplegu Zentroa zarratu egin dabe



Enplegu Zentroa Artean.

### Erredakzioa

Arteako Enplegu Zentroak atek zarratu ditu. Iturri ofizialen arabera, zentroa zarratu egin dabe programea urtebeterako kontzesinoa zalako eta lokalak ez ebalako irisgarritasun baldintzak beteten.

2014ko zemendiaren 14an Lanbide eta Arratiako Udalen Mankomunidadeak, Arteako Udalen lankidetzegaz, Arratia eskualdeko lehenengo enplegu zentroa ipini eben martxan. Zentroak

urtebetez, orientazioa eta arreta personalizaua eskeini deutse Arratiako erabiltzailei barikuetan. Martitzenetan, orientazio berezia eta orokorra be eskeini izan da bertan. Proiektuak Europako Gizarte Funtsaren laguntzea eukan eta enplegu bilaketari lagunduteko Lanbidek eta Mankomunidadeak garatuten dabezan ekimenen artean egoan.

### "Zerbitzua bukatu da"

Zemendiaren 6an, "Enplegu Zentruaren zerbitzua bukatu da" inoan oharra egoan atean eta harrezkerozti ez dau zerbitzurik emoten. Iñaki Barrenetxea Mankomunidadeko presidentea, Lanbidek aurreko barikuan jakinarazo eutsela zentroa zarratu ebalako azaldu deutso BEGITU. "Ikuskapen bat egon da eta lekuak ez ditu beteten irisgarritasun baldintzak. Programea be amaitzeaz egoan" dino Barrenetxea.

Inaugurazio egunean, "laster zerbitzu gehiago" emongo ziralako Arteko bulegoan eta "hau ez da izango Arratiara hurreratu dogun atzenengo zerbitzua" esan eban Gotzone Sagardui Lanbideren zuzendariak.

## ARRATIA

# Musika Eskola eta Luis Iruarrizaga Abesbatzen kontzertuak

### Erredakzioa

Kontzertu eta musika ekitaldi ugari dagoz programata Santa Zezilia, musikarien zaindariaren egunaren inguruan. Arratiako Musika Eskoleak eta Luis Iruarrizaga Abesbatzak alkarregaz hainbat emonaldi eskeiniko dabe. Areatzako Bandak Olague Abesbatzagaz batera kontzertua emon eban hilaren 14an.

Arratiako Musika Eskoleak, Arantzazun, Artean eta Igorren eskeiniko ditu musika emonaldiak. Batzuetan, musika eskolako ikasleak eskeiniko dabe kontzertua, eta beste batzuetan, Luis Iruarrizaga Abesbatzagaz edo eskolako umeakaz batera. Holan, zemendiaren 19an Arantzazun kalejireia egingo dabe Musika Eskolako ikasleak. 17:30ean frontoitik abiatuta, herrian zehar hainbat geldialdi egingo dabez pieza batzuk joteko. Hurrengo egunean, musika eskolako Artean egongo dira, Andra Mari parrokiari, Luis Iruarrizaga abesbatza eta Arteako eskolako umeakaz batera. Emonaldi hau

Azaro Musikala programazioaren barruan dago. Hurrengo zapatuan, hilak 28, Igorreko Kultur Etxean eskeiniko dabe kontzertua musika eskolako ikasleak eta ludotekako umeak Luis Iruarrizaga abesbatzagaz batera 19:30ean.

Artean, Santa Zezilia inguruan antolatu da Azaro Musikala eta musikea protagonista dan bedertzi ekitaldi dagoz programan.

### Areatzako Banda

Areatzako Bandak hilaren 14an kontzertua emon eban Areatzako Klarisen komentuko eleizan. Sano kontzertu berezia izan zan. Alde batetik, Klarisen komentuan kontzertua egiten daben lehenengo aldia izan zalako. Izan be, Areatzako eleizan obrak egiten dagoz eta ezin izango da erabili hilabete batzuetan.

Berezia izan zan kontzertua ez horregaitik bakarrik. Banderaren musikeagaz, Olague Abesbatzako abots bajuak (gizonak) kantau eben eta perkusinoak be protagonismo handia izan eban.

## AREATZA

# 2016ko aurrekontua egiteko batzarrak egingo dira zemendia eta abenduan



Areatzako udaletxea.

### Erredakzioa

Areatzako Udalak datorren urteko aurrekontuak prestatzeko herritarraz batzarrak egiten hasiko da zemendiaren 17an eta abenduan zarratuta egongo dira 2016ko aurrekontuok. Arloko batzar bi eta batzar orokor bi egongo dira kontuak plenora eroan aurretik.

Billaroztarren parte hartzea segurtatzeko, batzarrak egongo dira. Hilaren 17an, Kultura, Kirola eta Aisia landuten daben alkarteak dagoz deituta eta hurrengo egunean Garapen Ekonomikoa eta Urigintza landuko da. Baina batzarrok ez dira izango eretxia emoteko bide bakarra. Gainera, areatzapartehartzea@gmail.com helbide elektronikoa dago eta zinegotziakaz berbatutako batzarrak be egongo dira. Eretxia idatzi eta kutxatxoetan sartzeako aukera be egongo da 19tik aurrera. "Batzarretan, taldeka ipiniko

dogu jentea eta batzarretatik ateraten dana jasoko dogu; gmail korreo bat be sortu dogu; buzoiak egongo dira kalean eta zinegotziakaz batzarrak egongo dira ea egunero. Zinegotziak hemen egongo gara ahalik eta egun gehien, jentearen eskakizunak ikusteko" azaldu deutso BEGITU Asier Garcia Areatzako alkateak.

Ekarpenak jasota hurrengo astean zirriborro bat egingo da jentear egindako ekarpenai lehenetasuna emonez eta diru kopuru bat egotziz. Abenduaren 11n zirriborroa aurkeztuko da eta beste astebeite bat egongo da aldaketak egiteko. Atzenengo proposamena 22an aurkeztuko da, eta jentear oneritxiagaz, Osoko Bilkurara eroango da abenduaren 28an.

### Aurrekontuak baino gehiago

Areatzako alkatearen ustez, parte hartze sistema hau ez da aurrekontuak egiteko sistema bat bakarrik, "Udalak

funtzionetako sistema bat izan behar dau". Bere ustez, herritarren eta udalaren artean "mesfidantza" puntu bat egon da eta konfiantza berreskuratu behar da. "Jenteagaz kontaktu zuzena gura dogu eta herria inpliketea".

Kontuak abenduan zarratuta egotearen garrantzia be azpimarratu gura izan dau alkateak. "Urteetan lehenengoz izango dalako Areatzan aurrekontuak abenduan zarratuta egongo dirala. Eta hori hauteskunde kanpainen esan genduan egingo genduala. Guretzako garrantzitsua da 2015eko abenduan 2016ko kontuak onartuta eukitea, legez egin behar dana".

### Zemendiak 17, martitzena

19:00etan, Kultura, Kirola eta Aisia batzarra. Pleno Areatoan.

### Zemendiak 18, eguaztena

19:00etan, Garapen Ekonomikoa eta Urigintza batzarra. Pleno Areatoan.

### Zemendiak 23, astelehena

19:00etan, Batzar Orokorra. Udaletxeko Pleno Areatoan.

### Abenduak 11,

19:00etan, Bigarren Batzar Orokorra, zirriborroaren aurkezpena. Udaletxeko Pleno Areatoan.

### Abenduak 22,

19:00etan, Aurrekontu proposamena aurkeztu. Pleno Areatoan.

### Abenduak 28,

19:00etan, Udalbatza. Aurrekontuak aurkeztu. Udaletxeko Pleno Areatoan.

## ARRATIA

# Euskerearen Egunerako motorrak berotuten

### Erredakzioa

Euskerearen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an da eta gure eskualdeko herri batzuetan hasi dira euskerea bultzatzeko ekitaldiak egiten. Arantzazun egun horretarako lemea sortu behar dabe herritarrek; Areatzan aste osoko egitaraua prestatzen dabiz eta zemendiaren 30ean hasiko dira ekitaldiak, eta Zeberion, Bertako Produktuen Azoka dagoala aprobetxauko dabe umeen euskeraz egiteko motibazioa indartzeko.

### Arantzazu

Arantzazuko Udalak herritarrek euskerearen aldeko lemea bat egitea gura dau, berau Arantzazun Euskerearen Egunean lemea izan daiten. Lemea aurkezteko atzen eguna zemendiaren 25a da eta

irabazlea Euskerearen Egunean bertan, abenduaren 3an, emongo da jakitera.

Parte hartzaileak Arantzazun erroldatuta egon behar dira. Lemea kartazal baten kanpoko partean idatzi behar da eta barruan egilearen datuak. Gero, udaletxe aurrean dagoan postontzian itxi behar da. Lemea euskera hutsean egon behar da eta euskereagaz zerikusia izan behar dau. Eta ezin da alde aurretik erabilitako edo ezaguna dan lemea edo esaldirik aurkeztu.

Saria 100 euroko kultura bonoa izango da.

### Areatza

Etorkizunari eta iraganari begira hasiko dabe astea Areatzan. Hori dala eta, zemendiaren 30ean, lehenengo egunean, gurasoentzako

motibazio eta konzientziarazio saioak egongo dira. Paula Casaresek berbaldu bi emongo dauz, "Euskera, entra un idioma en casa" 17:30ean eta "Zuk duzu gilitza" 19:00etan. Bitartean jubila duak ipuinak kontauko deutseez umei. Hurrengo egunean, abenduaren 1ean, 19:00etan, barriketea kafea eta pastakaz. Barriketarako gaia Areatzako euskerearen egoera izango da. Hainbat herritarrek Areatzako euskerearen bilakaeraren inguruan egingo dabe berba.

### Zeberio

Zeberion zemendiaren 29an, frontoian Euskerearen Eguna ospatuko dabe. Antxinako joko eta jolasak egongo dira, eta baita puzgarriak be, umeen gozamerako.

## IGORRE

**Batz-ek, enpresa barruko euskerearen erabilera % 20 gehitzeko konpromisoa hartu dau****Erredakzioa**

Enpresa barruan euskerea indartzeko Euslan programa pilotuan parte hartzean dau Batz-ek beste hamaika enpresagaz batera. Helburua da, enpresa industrialetako lan-hizkuntza moduan euskerea gero eta gehiago erabilteko prozedurak eta praktikak diseinatu eta gauzatea, barrura eta kanpora begira, agozkoan, idatzizkoan eta hizkuntza paisajearen.

Izan be, Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikako sailburuordearen esanetan, "hobetu gura badogu —eta badogu zer hobeturik euskerearen erabilera lan munduan indartsuago izan daiten— ezinbesteko baldintza da egiten doguna eta gure lan egiteko moduak bariztatzea". Eta horretara dator bete-betean Euslan ekimena.

Esperientzia pilotu honek 2017an amaituko dau bere ibilbidea. Orduko Jaurlaritzak programako enpresari 904.293 euroko diru-laguntzea

emongo deutse. Industriaren sektoreko 12 enpresa dira parte hartzean dabenak eta guztien artean 5.000 langiletik gora biltzean ditue.

Enpresok konpromiso bat hartu dabe: enpresa barruko agozko eta idatzizko lan hartu-emonai eta hizkuntza paisajeari jagokien parametroetan, euskerearen erabilera % 90era iritea, edo gitxienez % 20ko hobekuntzea izatea 2017ko urtean. Momentu honetan erabilera-tasarik bajuena % 64koa da.

Konpromiso horren neurgarritasuna, Bikain ziurtagiriaren bidez bermatuko da eta horretarako Batz-ek 2017an Bikain ziurtagiriari jagokon ebaluazioa egingo dau.

**Euskaragileak sarean**

Euskaragileak 13 enpresaz osotutako batzordea da. Bere helburua euskeraz saldu eta lan egin gura daben enpresen sarea indartu eta euren ereduak ezetutera emotea da. Horreen artean be Igorreko Batz kooperatibea dago.

## ARRATIA

**Puntu marroiak: konposta sortzean laguntzeko guneak****Erredakzioa**

Etxean konposta egiteko, Puntu Marroi batzuk ipini dira Arratiako udalerrietan. Bertan, udalak txikitutako inausketa-hondarrak hartu leitezke erabilera partikularerako, egituratzaile (estrukturante) eta

**Puntu marroia.**

materia marroi moduan.

Azken asteetan puntu marroi batzuetan, inausketa-hondar partikularrak eta beste motatako hondakinak zakuen gainean eta inguruetan agertu dirala jakinarazo dabe Arratiako Udalen Mankomunitadetik. "Erabilera desegoki honeek erabiltzailei kalte handia egiten deutsee, txikitutako materialea ezin dabelako jaso. Horretaz gainera, jentek itxitako hondakinak, erretirau eta beste edukiontzietara bota behar dira" azaldu dau Aitor Uriguen AUMko Ingurumen Teknikariak.

Partikularrak, inausketa-hondar kantidade handia izan ezker eta erabilerik ez badaukie, Igorreko Garbigunera eroan deikie, ezelan-

go kostu barik.

**Puntu marroiak inausketa hondarrak jasoteko**

Puntu Marroi honeetan eta bere inguruetan, ez da itxi behar ez bedarrik, ez inausketa hondarrik ez ezelango hondar begetalik, ezta beste motatako hondakinik be. Puntu Marroiak Mankomunitadeak itxitako inausketa-hondar txikituak hartzeako dira.

**Non dagoz?**

**Arantzazu:** Olarrako errotondan.

**Areatza:** eskoletako aparkalekuan.

**Artea:** Ekomuseoaren ondoan.

**Bedia:** Ibarako errotondearen ondoan.

**Dima:** Zubimakurren.

**Lemoa:** eskoletako aparkalekuan.

**Igorre:** San Juan auzoan, saihesbi-dearen azpian.

**Zeanuri:** probalekuaren zubiaren ondoan eta Altzutzako autobus geroalekuaren ondoan.

## ZEBERIO

**Organikoa batzeako bosgarren edukiontzia, marroia, ipini dabe****Erredakzioa**

Zeberion etxeko hondakinen frakzio organikoa gaika batzeako zerbitzua ipini da martxan, bosgarren edukiontzia eta autokonpostajearen bitartez.

Bilketa boluntario honetan parte hartzeako, izena emon behar da. Horretarako, herritarri informazioa emoteko kanpaina zabaldu da. Izena emoteko bideak honek dira: Atarrietan jarritako kartelak; [www.ut21.org](http://www.ut21.org) webgunea eta Udalaren webgunea; [konposta@ut21.org](mailto:konposta@ut21.org) helbide elektronikoa; 94 621 54 72 telefono zenbakia; eta udaletxeko banaketa-gune iraunkorra.

Edukiontzian landare-hondakinak, freskoak nahiz prestatutakoak itxi daitezke: frutak, barazkiak, lekaleak, ogia eta opilak, papelezko mahai-zapiak, lorezaintzako hondakin kopuru txikiak, frutu lehorrak eta abar.

**Materiala doban**

Ortua edo lorategia daukienean etxeetan debalde jasoko dabe autokonpostatzeko materiala; hau da, konpostagailua, aireagailua eta autokonpostatzeko gidaliburua. Materiala, hondakin organikoakaz ongaria edo konposta ekoizteari buruzko

prestakuntza tailerretan emongo da. Lehenengo tailerra hilaren 11n izango da.

Birziklatzeko materiala be jasoko dabe debalde etxean edukiontzirako izena emon daben herritarrek: 10 litroko edukierako ontzi bat, 100 boltsa konpostagarri, edukiontzia zabaltzeko giltza eta azalpen-itsasgarria. Banaketea egingo daben ingurumen teknikariak argituko dabez egon daitezkezan zalantzak.

**Edukiontzien kokapena**

Zeberion lau edukiontzi marroi ipini dira. Ermitabarri 8n, Zubialdeko aparkalekuan, Sautuolabarrin, Eskolaren ondoan eta Arkulanda 16an dagoz edukiontzi marroiak.

**Edukiontzi marroia. Argazkia: Udaltalde21 Nerbioi-Ibaizabal.**

**MUNDUAREN AZKEN MUTURREKO EROSLEA**

**EROSKI** online zurekin

**lurraldearen %100-era iristen gara**

**eroski.es**

EROSKI online Supermerkatuan lurraldearen %100era iristen gara eta Euskadiko eta Nafarroako landatar eremu guztietan ematen dugu zerbitzua. Zauden lekuan zaudela ere zurekin egoteko, zure munduaren, gure lurraldearen azken muturrean egonda ere.

## DIMA

### Umirez biziteko ikastaroa

#### Erredakzioa

Dimako Andraizea taldeak Umirez bizi izeneko ikastaroa antolatu dau. Ikastaroa zemen-diaren 21ean izango da, zapatuz, goiz eta arrastiz. Izan be, goizeko 10:00etan hasiko da eta 18:00etan amaitu. Partaideak alkarregaz bazkalduko dabe jate-txean.

Talde txikia izango da, 10 eta 20 lagun artekoa. Izan be, plaza mugatuak ditu eta gitxienez 10 pertsonak emon beharko dabe izena ikastaroak aurrera egiteko. Ikastaroaren prezioa 30 eurokoa da, bazkaria barne; Andraizeako kideentzat 20 euro. Izena emoteko andraizea@gmail.com helbidera idatzi edo 656 728 340 telefonora deitu behar da.

#### Barrea beharrezkoa

Zientziak konfirmatu dau jentek baekiena, barre egitea osasungarria dala. Osasuntsu eta alai biziteko aukerea eskeintzen dau ikastaro honek. Gainera, Charlie Rivel pailazo handia zanaren esanetan, "barrea da lurraldeko herri guztiak espresetako erabilten daben hizkuntza bakarra".

## ARRATIA

### Doitzaile ikastaroa Zulaibarren

#### Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitadeak eta Zulaibar Ikastegiak matrizeen doitzaile-ikastaroa antolatu dabe gazteentzat. Ikastaroak 200 orduko iraupena eukiko dau, eta eskualdeko enpresetan praktikak egiteko aukerea emongo dau.

Doitzaile ikastaroa Foru Aldundiaren Arratia Gaztedi programaren barruan dago eta Foru Aldundiak diruz laguntzen dau osorik.

Zemendiaren 23an hasiko da, eta asteleheneetik eguenera izango da, 15:00etatik 19:00etara.

Bertan, ikasleak diseinuen interpretazio grafikoa, trokelo elementuen muntaketa-erispideen gaineko ezagutza eta aplikazioa, eta doikuntzaren eta marmolgintzaren fase, jardura, tresna eta elementuen ordenazioa landuko dabez besteak beste.

## ZEANURI

### Asterriako jaiak hile amaieran

#### Irati Urien

Zemendia amaituteko dagoanean hasten dira Ander Deuna jaiak. Asterriako Urri-Barren txokoa, Zeanurin, prest dagoz txorizo eta buzkantzak daborduko. Ikusi egin behar orain arteko hego haizeak segiduko dauan edo gaztelerazko esakereak dinoan lez "San Andres nieve en los pies" jazoko dan. Beheko suan behintzat, aurten be ez da txingarrik faltauko auzoko jaiak hauspotuten ekiteko.

#### Zemendiak 27, barikua

20:00etan jaien hasiera ofiziala, bolanderak eta txistulariak baserri arteak. Jarraian, auzo-afaria.

#### Zemendiak 28, zapatua

18:00etan herri-kirolak: Motozereagaz 80 korte vs. 8 ardi eskilau; ostein, neskak 20 minutu vs. zaldia 20 minutu.

20:00etan euskal erromeria Adolfo eta Unaigaz.

20:30ean odoloste jana auzotar eta inguratzen diran guztientzat.

21:30ean jantzaldia.

#### Zemendiak 29, domekea

Urri-Barren alkartearen 25. urteuren ospakizuna.

12:30ean Aureskua. Ondoren bertsolariak: Eñaut Intxaurraga eta Arkaitz Estiballes. Amaitzeko Arrikibar jantza taldearen ekitaldia.

#### Zemendiak 30, astelehena, Ander Deuna eguna

19:00etan meza San Andres ermitan. Ondoren txokolate jana datozan guztientzat eta jaien amaiera.

## BEDIA

### Leku libreak dagoz udal ikastaroetan

#### Erredakzioa

Bediako Udalak eraturako ikastaro batzuetan plaza libreak dagoz, eta beteteko, martxan dagozan ikastaroetan izena emon ahal izango da zemendiaren 27ra arte, 16:30etik 19:30era liburutegian.

Honek dira leku libreak daukiezan ikastaroak: Egurra lantzen, Yoga, Zumba, Haurrentzako zumba, Korru jantzak, Umeentzako euskal jantzak, Ingeleseko mintza praktika eta Euskerea ikasteko ikastaroa.

## LEMOA

### Hamasei lagunek hartzean dabe parte Berbalagun egitasmoan

#### Erredakzioa

Hirugarren urtea da Lemoan Berbalagun egitasmoa martxan dala. Lemoako Udalak eta Arratiako AEK-k 2013an ipini eben martxan, eta gaur egun 16 persona biltzean dira astero hizkuntza ohiturak aldatu eta euskeraz gero eta gehiago egiteko asmoz. Abenduaren 3an, Euskerearen Nazinoarteko Egunean, Berbalagun egitasmoaren aurkezpen publikoa egingo dabe Lemoan.

Berbalagun proiektua 16 urte-tik gorakoentzat da. Programak euskeraz berba egin gura daben lagunak hartu-emonetan ipinten ditu, eta non, noz, eta zertarako partaideak eurak ebazten dabe. Astelehenean, ordubetez, hiruzpau-lau laguneko taldeak biltzean dira gura daben gaien gainean berba egiteko. Euskeraz berba egiteko geratzeaz aparte, herrian egiten diran beste ekintzetan be parte hartzean dabe berbalagunak. Maiatzean ospatutako Herri Ginkanan eta poteoan, esate ba-



Berbalagunak Lemoan.

terako.

Lemoan lau talde dagoz momentuz. Talde bat martitzenetan batzean da arrastiko zazpiretan Txoane tabernan; beste bat eguaztenetan, 17:30ean Atxeta tabernan; hirugarren taldea, eguenean batzean da, hau be Atxeta tabernan, goizeko 11:30ean, eta laugarrena, eguenean, goizeko 09:30ean Jubiladuen Etxean.

#### Aurkezpen publikoa eta hurrengo ekintzak

Abenduaren 3an, Euskerearen Nazinoarteko Egunean, Berbalagun egitasmoaren aurkezpen publikoa egingo da. Gero 19:30ean berbaladia eta 21:00etan kontzertua egongo da. Tartean, Berbalagun proiektua indartzeko egindako bideoaren aurkezpena egin eta kopaua egongo da hurreratzen diranantz.

## ZEANURI

### Aurrekontuen auzo-batzarrak egingo ditu EH Bilduk zemendian

#### Erredakzioa

Atzen urteetan egin dauan lez aurrekontu parte-hartzaileak antolatu ditu Zeanuriko EH Bilduk. Zeanuriko bost auzotan egingo ditue batzarrak, iluntzeko 19:00etan danak. Zemendiaren 17an Otzerinmendi eta Uribegaz hasiko dabe errondea, Uribeko txokoa. Zemendiaren 18an Alzustaren txandea izango da eta txokoa bilduko dira. Plazako batzarra zemendiaren 23an egingo dabe Kultur Etxean; eta zemendiaren 24an, Asterrian, txokoa. Amaituteko Alzua, Ipiñaburu eta Undurragako auzotarrak Alzuako txokora hurreratuteko aukerea eukiko dabe. EH Bildu Zeanuriren esanetan "konbidauta dagoz Zeanuriko herritar danak, tartean Udaleko EAJ-ko kideak be bai". Batzarrotan auzotarrari herriko diru kontuen barri emongo jakie eta euren eretxi zein eskaerak jasoko dabez.

## ZEBERIO

### Bertako Produktuen XVII. Azokea

#### Erredakzioa

Zemendiaren 29an izango da Zeberion Bertako Produktuen Azokearen hamazazpigarren edizioa. Ekoizleak, besteak beste, Zeberio, Lemoa, Mallabia, Orozko, Barakaldo, Urduña eta Bilbotik hurreratuko dira. Baserriko produktuak, artisautzea, egurrezkoak, bitxiak eta ibilgailu elektrikoak topau

ahal izango dira bertan.

Azokak ibilbide luzea dauka eta hasikeratik erakusmahai kopurua mantenduten da udal iturrien arabera. Hogeta hamar izango dira aurten; horreetako hamarretan zeberioz-tarrak egongo dira euren produktuak erakusten eta salduten.

#### Euskerearen Eguna

Azokeagaz batera Euskerearen Eguna ospatuko da. Ekitaldia 11:00etatik 15:00etara izango da frontoian. Ekintzen artean betiko jolasak egongo dira: sokasalto, iturriak, trukemea eta zaku lasterketea beste jolas batzuen artean. Tailerrak be egongo dira.



## ZEMENDIAK 25

# Konziientziarino eta protesta ekitaldiak zemendiaren 25aren inguruan

Andren indarkeria barik biziteko eskubidearen gainean jentartea sensibilizetako eta berau aldarrikatzeko, hainbat ekitaldi antolatu ditue Arratiako talde feministak, andra taldeak eta erakundeak alkarlanean zemendiaren 25aren inguruan.

Zemendiaren 25a andren kontrako indarkeriagaz amaitzeko Nazinoarteko Eguna da.

## Erredakzioa

Urtero legez, Arratiarako kartel bateratua prestatu dabe Arantzazun, Areatzan, Artean, Bedian, Diman, Igorren, Lemoan eta Zeanurin egingo diran ekitaldiak batuz. Sensibilizazio eta konziientziarino daukie helburu ekitaldi horreetako askok (pelikulak, antzerkiak eta abar); baina aurten inoz baino protesta ekitaldi gehiago dagoz. Holan, zemendiaren 25ean, indarkeria matxistearen kontra agertzeko konzentrazi- noak egongo dira Arantzazun 12:00etan, Artean 17:00etan eta Arratia osokoa Igorren 19:00etan. Dimakoak plazan batuko dira sei- retan Igorreko konzentrazinora oinez eta indarkeria barik biziteko eskubidea aldarrikatzu joateko; hau da, Martxa More Txikia eginaz. Eta Lemoan, puntu morea egingo dabe futbol zelaietan.

Martxa Moreak Igorretik Bediarako bidea egingo dau aurten zemendiaren 22an.

keztu eta lehenengo proiektzioa egin ebenean, jentea kabidu ezin egon zan eta kanpoan geratu ziran asko. Hori dala-eta, barriro be proiektuau dau dokumentala Areatzako Emakumeen Foroak.

Lemoan, herriko taldeak eta banakakoak genero indarkeria txarresten dauan puntu morea osotuko dabe futbol zelaietan. Zemendiaren 21ean izango da, eguerdiko 13:00etan. Holan herritarrak, indarkeria matxistearen kontrako euren konpromisoa agertu ahal izango dabe.

Hurrengo egunean, zemendiaren 22an, domekaz, Martxa Morea izango da. Igorretik Bediara joango da aurten. Igorreko Kultur Etxeko Parketik abiatuko dira parta- taideak eguerdiko hamabietan eta Bediako plazara 13:30 inguruan helduko dira. Han ondo etorria egingo jakie ibiltariari trikitalari, bertso eta kantuakaz. Ondoren, indarkeria matxistearen kontrako esaldiak ipiniko ditue kioskoan eta indarrak berreskuratzeko jana



Igazko Martxa Moreako zutabeetako bat Areatzara heltzean.

eta edana egongo da.

Egun berean Artean, ekintza ludikoa prestatu dabe arrasti-

rako. *Las mujeres de verdad tienen curvas* pelikulea ikusteko aukerea egongo da han, eta

gero kafea eta pastak janez komentauko da pelikulea. Hitzordua Arteko ludotekan, arrastiko

## Beste kultura bat posible dala

Andren kontrako indarkeria ez da bakarrik hil egiten dauan muturreko indarkeria. Horren aurretik, eta horretara errotan dauan kultura oso bat dago. Baina kulturak, gure bizimoduan ostonduta dagoan indarkeria sotila ikusgarri egiteko eta salatzeke be balio dau, jentartearen sensibilizazioa lortuz. Hori dala eta, hainbat pelikula, antzerki eta beste ekintza ludiko asko prestatu dabez Arratian.

Lehenengo ekitaldia hilaren 18an izango da arrastiko seiretan Arantzazuko erabilera anitzeko gelan. Han *Rol jokoak* izenpeko kontakizuna egingo dau lpuin kontalari batek. Egun bi beranduago, hilaren 20an, Areatzan, Brigit Vanderbeke-ren *Muskulua* afaltzeko nobelearen gaineko tailerra egongo da arrastiko seiretan Emakumeen Gelan. Nobela labur honetan, Vanderbekek kritika zorrotza egiten deutso patriarkaduari. Hurrengo egunean, sei terdian Areatzako andren memoria jaso eta euren bizipenak kontetan dauan dokumentalaren bigarren proiektzioa egingo dabe. Izan be, dokumentala aur-

## AurRikontu pArte-harTZAileak 2016

Alkartu, adostu, berbatu. Reunirnos, consensuar, comprometernos.

**AZAROA**  
ZEMENDIAK

**Datzarrak 19:00etan udalotxerako Pleno Areatzan**

**ABENDUA**  
Dialaxha

**Azaroan 17** noviembre  
**Kulturoa, Kirola eta Aisia.**  
*Cultura, Deporte y Tiempo Libre.*

**Azaroan 18** noviembre  
**Garapen Ekonomikoa eta Urigintzoa.**  
*Desarrollo Economico y Urbanismo.*

**Azaroan 23** noviembre  
**Datzar Orohorra.**  
*Reunión General.*

**Abenduak 11** diciembre  
**Digarron Datzar Orohorra.**  
**Ziriborroaren aurkezpena.**  
*Agenda Reunión General*  
*Presentación del borrador presupuestario.*

**Abenduak 22** diciembre  
**Aurrekontu proposamena aurkezten.**  
*Presentación de la propuesta de presupuestos.*

**Abenduak 28** diciembre  
**Udalbatza. Aurrekontuaren aurkezten.**  
*Plena. Discusión del proyecto presupuestario.*



bostetan da.

### Zemendiak 25

Zemendiaren 25ean, Andren kontrako indarkeriagaz amaituteko Nazinoarteko Egunean, aldarrikapen ekintzak izango dira nagusi. Egun horretarako hiru konzentrazio dagoz egitarauan. Eta hirurak ordu desbardinetan dira, konzentraziook bateragarriak izan daitezzen. Arantzazun izango da lehenengoa, 12:00etan; Arteakoa arrastiko 17:00etan izango da eta konzentrazioan globo moreak bananduko dira. Atzenik, arrastiko 19:00etan, Igorreko Kultur Etxe parean izango da eta bertan Arratia osoko jentea batuko da.

Beldur Barik Arratia Lehiaketako sari banaketea hilaren 27an egingo da Zeanuriko Kultur Etxean, arrastiko 17:30ean. Arratia mailan, bardintasunaren alde gaztetxoak egindako ikus-entzuzkorik onenak sarituko dira.

Egun berean, arrastiko zortziretan, Igorreko Lasarte Aretoan, Txalo Produzioak-en *Datorren urtean hobeto* antzezlanaren antzetzuko da.

### Ekintza gehiago herrietan

Kartel honetatik aparte, beste ekintza gehiago be egingo dira Arratiako herrietan. Izan be, eraso kontrako eta bardintasuna-

ren aldeko burrukea ez da egun batekoa eta beharrezko dihardue gure eskualdeko herrietan.

Arantzazun berbarako, "Arantzazu morea berdintasunean" lelopean zazpi ekitaldi batu ditue, batzuk kartel bateratuan agertzen diranak eta beste batzuk ez, baina zemendiaren 25eko ingurukoak; baita data horretatik kanpokoak be. Holan, zemendiaren 21ean, plazan batuko dira 12:30ean globo moreak banandu eta Martxa Morerako banderolak egiteko eta hilaren 28an, *Ez gara Palestinaz ari* antzezlanaren egongo da Arantzazuko Kultur Gunean. Abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Egunean be andren Giza Eskubideetan arreta ipinita, konzentrazioa egingo dabe plazan 12:00etan. Auto-defensa ikastaroa be programau dabe abendurako.

Zeberion hiruhile osoan, zinean andren egoerearen gaineko filmak eskeintzen dabiz eta hausnarketa feminista egiten. Zeberion hilean behin pelikula bat proiektetan dabe Plazako ermitan. Aurtengo ikasturtean, andrak protagonista diran pelikulak eskeintzen dabiz udagoien osoan. Hilaren 29an, *Antonia* (Marleen Gorris, 1995) pelikula holandarra ikusteko aukerea egongo da.



## Indarkeria matxistea dala eta, 11 andra atendidu ditu Mankomunidadeak

Mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzuak emondako datuen arabera, 2015ean, urri lehenengoaren 30era arte, hamaika andrazko atendidu dira Arratian. "Kontuan izan behar da atendidutako kasuak errealidadearen %10 izaten dirala. Horrek esan gura dau, gitxienez, 110 kasu dagozala Arratian" dino Miren Urresti AUMko Bardintasun Teknikariak.

Jatorri, edade eta egoera zibil guztietako gizonak erabilten dabe indarkeria andren kontra eta jatorri, edade eta egoera zibil guztietako andrak jasaten dabe indarkeria mota hau. Dana dala, Mankomunidadeak aurtan atendidutako andren batz besteko edadea 32 urte izan

da. Gehienak bizkaitarrak dira, hamaikatik bederatziz, hain zuzen. Batek izan ezik beste guztiak seme-alabak daukiez.

Indarkeria bizi daben andrai arreta hobea emoteko, esku hartzean daben erakunde arteko Protokoloa dauka Mankomunidadeak, eta protokoloari jarraipena emoteko, martiaren 23an, arreta emoten daben erakundeak batu ziran: Ertzaintza, Osakidetza eta AUM, euren artean koordinatu eta indarkeriari erantzun bateratua emoteko. AUMko Gizarte Zerbitzuetan, arreta, laguntza, baliabide espezializatueta (laguntza psikologikoa, juridikoa...) bideratzen da, eta koordinazioa eta kasuaren jarraipena

egiten da. "Bestalde, Bardintasun Zerbitzuan, informazioa, prestakuntza, koordinazioa, prebentzioa eta sentsibilizazioa landuten da gainerako erakunde, alkarte eta herritarrakaz" azaldu dau Urrestik.

### Salaketea beti ez

Mankomunidadeko Gizarte Zerbitzuak indarkeria sexistea sufridu daben andrai laguntza juridikoa be emoten deutse eta kasu jarraipena egiten dau. 2015ean, atendidutako andren artean % 54,5k (sei andrak) salaketea ipini eben eta % 45,5k ez. Gehienak ipini dabe salaketea, baina beti ez da onena izaten eta kasuz kasu aztertu behar da andra baktaxaren

egoera.

Mankomunidadeak atendidutako andren % 72,7 Gizarte Zerbitzuak bideratuta izan da, % 18 Ertzaintzak bideratuta eta batek Osakidetatik izan dau sarbidea arretarako baliabideetara.

### Laguntza jasoteko

Arratian neska edo andra batek indarkeria mota hau bizi badau edo bizi dauanik ezetuten badau, telefono honeetara deitu leike laguntza jasoteko: 112 Larrialdiak; 900 840 111 hogetala ordukoa, debaldekoa eta konfidentziala, eta 94 631 17 17 Arratiako Udalen Mankomunidadea. Gizarte Zerbitzuak eta Bardintasun Zerbitzuak 08:00etatik 15:00etara atendiduten dabe.

**NAIARA** Hertz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**Orrie**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
E. Agirre, 1.  
48140 Igorre (Bizkaia) Telefono: 94 678 64 75

**GARANTXE** Autoeskola  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ  
Baimenak: A1, A, B1, B  
Lehendakari Agirre 31  
Telefono: 94 673 75 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@euskalnet.net

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, n.º 3. 48550 LEMOIA, Bizkaia  
Tel: 000 487 839 eta 009 200 717

**Igorren**  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

## ZIKLO-KROSA

## Lupetzik ez zirkuিতuetan



Julen Zubero.

## Erredakzinoa

Bero eta hego haizea egin dau aurtentan zemendian eta urtero edur edo

lupetzaz beteta egoten ziran ziklo-kroseko zirkuিতuak, aurtentan siku-siku egon dira. Espainiako Kopako lau lasterketa jokatu dira Audio, Mus-

kiz, Zuia eta Elorrion.

Urri bigarrenaren 31n izan zan Espainiako Kopako lehenengo proba Loudion. Lupetzik egon ez arren lasterketa gogorra izan zan, zirkuিতuak desnibel handia daukako eta bero handia egin ebalako. Arratiarik ez podiumean. Julen Zubero 13. egin eban Elite mailan, Mikel Epalzak seigarren Master 30 kategorian eta Manu Quintanillak zortzigarren Master 40n.

Hurrengo egunean, lehenengo hamarren artean geratu ziran Zubero, Epalza eta Quintanilla Muskizen. Zirkuিতua leuna eta azkarra zan eta bero egin arren, Julen Zubero bederatzigarren egin eban; Epalzak zazpigarren eta Quintanillak seigarren, bakotzak bere kategorian.

Zemendiaren 7an, Zuiako Ametzagan (Araba) izandako lasterketan arratiarrak master kategorietan lortu ebezan emoitzarik onenak. Espainiako Kopako hirugarren lasterketa honetan, Epalzak 4. egin eban eta

Quintanillak bederatzigarren.

Hurrengo egunean, Elorrion izan zan beste proba gogor bat. Zirkuিতuaren desnibel handia dala-eta, arratiarrak gogor egin behar izan eban burrukan lehenengo postuetan heltzeako. Lehenengo hamarren artean sartu ziran Manu Quintanilla eta Mikel Epalza. Quintanilla bosgarren izan zan Master 40 kategorian eta Epalza 9. Master 30en.

Hilaren 14an Arbulon jokatu zan Arabako Txapelketan Mikel Epalzak, bigarren postua eskuratu eban, eta Aingeru Artetxe zeanuriztarrak laugarrena, biak Master 30en. Manu Quintanillak ostera, Master 40 kategorian, laugarren egin eban.

Hurrengo egunean, Colindresen, Elite mailan Julen Zubero 7. egin eban. Bigarren joian baina erori egin zan. Master 30 kategorian Mikel Nuñez igorretzarrak, Aingeru Artetxe zeanuriztarrak eta Mikel Epalza lemoaztarrak 9., 10. eta 11. postuak lortu ebezan, hurrengo hurrengo.

## AZKOREA

## Badago apustua

## Irati Urien

20.000 euro jokoan, Joxe Mari Olasagasti eta Aitzol Atutxak zezeilaren 13an edo 14ean egingo dabe hainbeste espero zan apustua. Hogeina enbor zeinek arinago moztu izango da erronka, 14 kanaerdiko eta 6 oinbiko.

Zemendiaren 11n Tolosako Kantabriko tabernara hurreratuteko desafiaio luzatu eutsan Igeldokoak dimoztarrari, eta hau agertu. Olasagastik apustua hasi ebanean bakotzak 12 oinbikotara jokatzea zan asmoa baina Atutxa II.k 20 kanaerdikotara gura ebala esan eutsan aurkariari Kantabriko. Gipuzkoako ezetz esan eutsan baina atzenean, enborrak adostutea lortu eban: 14 kanaerdiko eta 6 oinbiko. Diruari jagokonean bizkaitarrak 10.000 euroko kopurua proposatu eban. Olasagastik diru asko zala eretxi eutsan baina aparteko desadostasun barik alde agertu zan. Lekua airean dago ondino, aurreragoan emongo dabe ebaztaren barri. Atutxak apustua Bizkaian egiteko aukerea ikusten dauan artean, Olasagastik inondik eta inora be ez.

Hogeii urte daroaz Aitzol Atutxak azkoran, eta danerik egin badau be apustu bat faltan euki dau. Hiru hile barru egurra emoteko prest dago dimoztarra.

## FUTBOLA

## Andrak bigarren jarraitzen dabe

## Ainhoa Duñabeitia

Arratiako neskek sano fin dabiz eta atzen neurketa biak irabazi dabiz. Hilaren 7an Igorren jokatutako partiduan 3 eta 0 irabazi eutsen Lakuari. Hilaren 14an be

garaipena lortu eban Barakaldoren kontra 0-2 irabazita. Hurrengo neurketa Berriotxoaren kontra jokatuko dabe Igorren.

Arratiako mutilak ostera, beharrezko garaipena lortu eban Trapagaran taldeari irabazita hilaren 14an jokatutako partiduan. Gol bakar bategaz lortu ebezan 3 puntuak. Garaipen honerik esker 7. postuan dagoz. Hurrengo norgeiagokea etxean jokatuko dabe Udulizen kontra hilaren 21ean.



## ZAINDU GURE LURRA

Materia organikoa konpost bihurtu

MATERIA ORGANIKORAKO  
POLTSA BIODEGRADAGARRIAK  
AMAITZEN JATZUZANEAN,  
HARTU EIZUZ DEBALDE  
ZURE UDALETXEAN  
EDO MANKOMUNITATEAN

EDUKIONTZI MARROIAN  
EDO AUTOKONPOSTAJEAN  
IZENA EMON GURA BADOZU, DEITU  
94 631 17 17  
TELEFONO-ZENBAKIRA  
EDO JO MANKOMUNITATERA



Konpostajearen bideak.  
Zuk erabagi.



## KIROL ASTEA

# Kirol alkarteak beharreen Lemoako Kirol Astea

### Erredakzioa

Zemendiaren 16tik 22ra Kirol Astea antolatu dabe Lemoan. Aste horretan inoz baino gehiago, gurean arrakasta handia izaten daben kirolak praktikatuko eta kirol barriak ezetuteko aukerea egongo da. Kirola egoki egiteko, berbaldiak egongo dira.

Edade guztietakoak eukiko dabe eurentzat aproposa dan kirola egiteko aukerea baina umeentzat prestatu dira ekintza gehienak. Holan, astean zehar, eskolan, erakutsiko dira herri-kirol egokituak, gorputz adierazmeneko saioa, eskupelota partiduak, igeriketa sinkronizua, kirolai buruzko muralak eta beste ekintza asko, umeen artean kirola egiteko zaletasuna bultzatzeko asmoz.

Liburutegian mendizaletasunagaz lotutako liburu barriak egongo dira eskuragarri.

### Egitaraua

#### Zemendiak 16, astelehena

11:00etan, Lemoako Harrobi Futbol Klubak eta Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta, goi mai-



### Kartela.

lako kirolari ohiakaz berbaldia eskolan DBHko ikasleentzat.

#### Zemendiak 17, martitzena

Goizean Ganzabal Mendi Taldekoak eta eskolako ikasleak alkarregaz mendira.

19:00etan, CD Lemoaberrik antolatuta, nesken lagunarteko futbol partidua Arlonagusian.

#### Zemendiak 18, eguztena

17:00etan, Udalak antolatu-

ta, "Ariketa fisikoa hirugarren adinean" berbaldia Jubiladuen Etxean.

#### Zemendiak 19, eguena

19:00etan, Udalak antolatuta, "Biomekanika txirindularitzan" berbaldia Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

#### Zemendiak 20, barikua

20:00etan, Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta, eskupelota partiduak frontoian. Apustuak egiten ikasteko aukerea eta irabazlearentzako afaria.

#### Zemendiak 21, zapatua

17:00etan, Kirlan-ek antolatuta, zumba maratonia kiroldegiko kan-tan.

#### Zemendiak 22, domekea

08:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, mendi urtekerea. Saseta-Estibaliz GR-38 (ardaoaren eta arrainaren ibilbidea) 4. etapea. Izen emotea zemendiaren 18an, 20:00etatik 22:00etara Ganzabaleko lokalean.

10:30ean, Harrobi Futbol Klubak antolatuta, futbol jolasak Bubbelsoccer eta beste batzuk. Arlonagusian.

13:00etan, Mendieta Herri Kirol taldeak antolatuta, herri-kirol erakustaldia Elizondan.

16:00etan, Saskibaloi partidua (andrak) Arraibin.

## TXIRRINDULARITZEA

# Euskadi Basque Country Murias izena izango dau Murias taldeak

### Erredakzioa

Datorren denporaldian, Murias taldeak, Euskadi Basque Country Murias izena izango dau eta holan agertuko da taldearen ekipazioan eta ibilgailuetan. Ekimena ondo hartu dabe Eusko Jaurlaritzan, herriak ezetutera emoteko kirolak eragin handia izaten dau eta.

Datorren denporaldian taldeak Kontinental kategorian lehiatzen jarraituko dau, eta saiatuko dira lasterketa gehiagotan parte hartzean; Britainia Handiko itzulian edo Noruegako itzulian, barbarako. Kontinental kategoriatik profesionalera

saltoa 2017an egin gura dau Jon Odriozola taldeko zuzendariak. Orduan, Euskal Herriko Itzulian edo Donostiako Klasikoan parte hartu ahal izango dau taldeak.

### Taldearen aurkezpena Diman

Euskadi Basque Country-Murias Taldea Diman aurkeztu zan zemendiaren 16an Axpe Goikoa Jatetxean. Zuztarrak Arratian dituan taldearen bigarren urtea izango da hurrengo. Aurkezpenean taldeko 14 txirindulariak, Jon Odriozola taldeko zuzendaria eta Arratia Ziklista Elkarte Juan Mari Zurinaga presidentea egin ziran.



Jon Odriozola eta Juan Mari Zurinaga Eusko Jaurlaritzan.

## MENDIA

# Nepal, Brasil eta Pirinioetako ibilaldien gaineko proiektzioak

### Erredakzioa

Ganzabal Mendi Taldeko bazkideak euren bajeen barri emoten daben berbaldi eta proiektzioak egiten dabiz zemendia eta abenduan. Lehenengoa zemendiaren 11n izan zan, eta hurrengo hiru eguaztenetan, beste hiru proiektzio egongo dira. Arrastiko zortziretan izango dira, Jubiladuen Etxeko

goiko aretoan.

Zemendiaren 18an, Garbiñe Uriarte, Izaskun Martin eta Soraya Lizundiak Nepalen bizi izandakoa kontau eta erakutsiko dabe "Nepal, ametsetatik errealitatera" proiektzioaren bitartez. Hurrengo eguenean, Patxi Lopezek eskutik, "Brasil, Ruta Coqueiros, Chapada Diamantina y Estrada Real de bicicleta" proiekt-



zioaren bitartez Brasilgo paraje ederrak ikusteko aukerea egongo da. Abenduaren 2an, Ganzabal Mendi Taldekoak Kataluniako Pirinioetatik egindako ibilbidearen barri emongo dabe "Refugis del Torb 2015" izeneko berbaldi eta proiektzioagaz.

publicidade  
94 631 73 14 eta 649 979 115

**www.begitu.org**

**Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com**

**MERKA LABELA-HARATEGIA**

**Etxeko produktioak:**

- Txerizoaik
- Olotostoaik
- Buskantaik
- Saltrituak
- Hamburgesak

**Arratiako produktioak:**

- Baserriko atxila
- Urtsiak
- Baserriko arrautzak
- Zurrak
- Harriak
- Geroak (fruta eta barazkiak)

Herrikoak, berriak, zuzenekoak, zuzenekoak, zuzenekoak  
Herrikoak, berriak, zuzenekoak, zuzenekoak, zuzenekoak  
Herrikoak, berriak, zuzenekoak, zuzenekoak, zuzenekoak

Bizkaifisios SLk  
bi zentro ditu

**Fisioterapia Zentroa Igorre**

Ellexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08

**Andra Mari Klinika**

Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1, Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

ARA OTZ

Lanegia eta Jabetza

**FISIK**

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIO ZENTROA

Tel. 94 685 11 16

LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

**RUGBY TABERNA**

•Egin zaituz bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasak

Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Pab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

## MUSIKEA

## Herriko alkarteen musika ekitaldiak batzean ditu Azaro Musikalak

## Erredakzioa

Arteko eragile gehienak hartzean dabe parte Azaro Musikala antolatuten. Udalak, AKKT-k, Arratiako Musika Eskolak, Ekomuseoak, Guraso Elkartek, Arteko Eskola Publikoak, Batzokiak, Mikel Deuna Jubiladuen alkartek, Andra Mari Parrokiak eta Herriko Bentak indarrak batu dabez zemendian zehar musika mota desbardinatuko ekitaldiak antolatuteko. Rock, jazz, abesbatz eta musika klasiko eta herrikoien kontzertuak entzuteko aukerea egongo da Artean.

Hirugarren urtea da Artean Azaro Musikala antolatuten dala. Herriko eragileen beharra gai baten inguruan batzeako helburuagaz sortu zan. "Eragile bakotzak bere kabuz egiten ebazan gauzak, ekimen desbardinak lotura barik. Eta gura izan genduan herri ikuspegia emotea, gai bat hartuta. Zemendian Santa Zezilia eguna danez eta eskolan musika ekitaldi bat eta Udalak be antolatuten ebanez eleizan koru emonaldia, hori aprobetxau genduan eragileak batu eta herri ikuspegia emoteko" dinoe antolaketuzatik.

Artea ez da herri handia eta ez da geratzen aurtengo kartelean parte hartu ez dauan eragile askorik. Bederatzi ekimen dagoz, eta datorren urtean beste bat gehiago lortzea espero dabe antolatzaileak.

## Publiko guztiarentzat

Rock-a, jazz-a, abesbatzak, musika klasikoa, herrikoia... danerik egoten da Azaro Musikalean. Aurten umo-

rez betetako kontzertu didaktiko batez eta Aneika Ara rock taldearen kontzertuagaz hasi da.

Hurrengo hitzordua, hilaren 19an da Euskalduna Jauregian jazz gauaz disfrutatuko. Bertara joateko autobusa, 18:00etan urtengo da Areatzatik eta gero Artea eta Igorretik pasakeran hartuko dau jentea.

Hurrengo eguneko hiru ekitaldiak Artean bertan izango dira: Arteko eskolako ekitaldia eskolan, Andra Mari Parrokian abesbatzak, eta Batzokian rock kontzertua. Hurrengo zapatuan, hilak 28, arrastian Ekomuseotik hasita, eta trikitixek eta Imanol Ituiño magoak lagunduta, plazaz plaza ibiliko dira arteztarrak eta segiduan, blues-soul kontzertua egongo da Ekomuseoan.

Amaitzeko, urtero legez, Arratiako Musika Eskolak ikasleen kontzertua eratu dau ludotekan. Ondoren kopaua egongo da.

ARTEKO EKITALDI AZARO MUSIKALA			
13	BARNEA	13	BARNEA
19	EGERNA	20	BARNEA
20	BARNEA	20	BARNEA
28	ZAPATUA	28	ZAPATUA
30	BARNEA		

## LEHIAKETEAK

## Zu bai zu Lehiaketako casting-etara izena emoteko epea zabalik daborduko

Arratian talentu handia dagoala eretxita, Igorreko Udalak Zu bai zu Talentu Lehiaketea ipini dau martxan. Izena emoteko epea zabalik dago urtaila arte.

Igorreko Kultur Etxean emon behar da izena, baina Arratia osoko jentek hartu daike parte. Partaideak, graffiti-a, jantza, koktelak, kantau, musika tresna bat jo, Guinness errekor bat apurtu... bakotzak bere abildadea erakutsi ahal izango dau gehienez bost minututako ekitalditxo baten.

## Erredakzioa

Zu bai zu Lehiaketako galak, zezeilan hastea gura dabe antolatzaileak, baina alde aurretik lan egin behar da gala horreetan onenak agertu daitezkan. Izan be, telebinoan emoten diran lehiaketen estilokoa izango da Zu bai zu, ikusgarri eta ugaria. Horretarako, antzerki mundutik datorren jentea dago antolaketuzan.

Talentu Lehiaketea euskeraz izango dan arren, euskeraz ez dakieneak be apuntatu daitezke. "Laguntza emongo jakie euren lana euskeraz aurkezteko. Esate baterako, Saharako batzuek jantza bat aurkeztu gura badabe, euren lana euskeraz zelau aurkeztu esango jakie" azaldu deutso BEGITUri antolatzaileetako batek. Edozelan be, euskerazko lanak puntu gehiago izango ditue.

## Finala Igorreko jaietan

Urtailan, casting-ak egingo dira, aukeraketea egiteko. Gero galak egingo ditue zezeiletik aurrera. Galak astean baten edo birritan izango dira, parte hartzean dauan

**ZU BAI ZU**  
**TALENTU LEHIAKETA**

**2.000€**  
**ESKUDIRUTAN**  
**500€**  
**BONOETAN**

ZU BAI ZU, talentu bila dabil!  
Zure abileziak, trebetasunak, gaitasunak... erakusteko prest bazaudu, parte hartu!

**KATEGORIAK**  
UMEAK, GAZTEAK, HELDUAK

- Parte-hartzaileen erdiak Arratian erroldatuta egon behar dira
- Euskerazko lanak puntu gehiagorekin baloratuko dira
- Lanen gehieneko iraupena: 5 minutu
- Izena emoteko epea 2015eko azaroaren 15etik urtarrilaren 30era artekoa

INFORMAZIO GEHIAGO: IGORREKO KULTUR ETXEAN

jentearen arabera. Finala Igorreko jaietan jokatu da.

Hiru kategoria egongo dira: umeak, gazteak eta nagusiak. Umeen kategoria 11 urtera arte-

## Lehiaketako finala

## Igorreko jaietan izango da

koa da eta irabazleak 200 euro izango dau sarizat. Gazteen kategorian, 18 urtera artekoan, irabazleak 300 euroko saria izango dau. Nagusien kategorian saria 1.000 eurokoa izango da. Sariak eskudirutan eta AMEk emondako bonoetan emongo dira.

Epaimahaia antzerkian, jantzan eta musikan adituak diran hiru kidek osotuko dabe.

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde

**Hamabostero Begitu zure etxean**

**begitu**  
arratia ubide zeberio

**13 urte eta gehiago**

**Egin zaitez zeu be Begitu-lagun**

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkartek ateratako produktuak.  
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€



Moztu eta bidali helbide honetara:  
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48142 Artea

## ANTZERKIA

# Ume eta nagusientzako antzerkia Igorren

### Erredakzioa

Hamabostaldi honetan antzezlan bi taularatuko dabez Igorreko Kultur Etxean. Zemendiaren 21ean, *Martinak bere istorioa aurkitu zueneko*a Les Ressistens antzerki taldearen produkzio eta Zinegoak-en koproduzioa izango da arrastiko 18:00etan. Antzezlan honek haur sasoiko genero nortasunaz dihardu,

aktore eta txotxongiloen bitartez. Hilaren 27an, Txalo Produzioak-ek *Datorren urtean hobeto* antzetzuko dau Igorren gaueko 20:00etan.

*Martinak bere istorioa aurkitu zueneko*a 5 eta 12 urte bitarteko umeai dago zuzenduta. Mauma taldearen lan honek Martinaren istorioa baino, Martinaren biajea kontetan dau. Norbere buruaren ezagutza eta onarpenerako

biajea, hain zuzen be. Martinak ez eukalako arazo bat, besteak esaten eben moduan, a letrea sobran eukan, hori baino ez. Bera beti Martin sentidu izan zalako.

Genero nortasuna haurtzaroan finkatuta egon arren, gizarte honetan nagusiak, umeak euren garapen personalerako traba izan daitezkan estereotipo batzuen barruan heziten saiatzen dira. Mauma taldekoak antzezlan honeguz norbanakoan desbardintasunaren aurrean errespetua bultzatu gura dabe.

Antzezleak, Maite Bayon, Marta Alvarez eta Jon Koldo Vazquez dira. Txotxongiok, La Enana

Naranja alkartearenak.

### Nagusientzako komedia azidoa

*Datorren urtean hobeto* obra *El año que viene será mejor* komedia txalotuaren euskerazko bersinoa da. Azidoa eta gure errealidadearen isla inteligentea da. Kokoteraino dagozan hiru andra dira protagonistak. Bakarrizketa laburrak, pentsamentuak, alkarrizketa txikiak, istorioen zatiak eta gure errealidadearen argazkiak osotuten dabe komedia hau.

Marta Buchaca, Carol Lopez, MerceSarriasetVictoriaSzpunberg-ek sortutako lana da. Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean, Itziar Urretabizkaia, Ainhoa Garai eta



Iraitz Lizarragak emoten deusie bizitza kontakizunari.

## LEHIAKETAK

# Ume eta gazteentzako lehiaketak

### Erredakzioa

Lemoako Haur eta Gazteen Ipuin Lehiaketan eta Haurrentzako X. Marrazki Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik dago. Ipuinak

urtailaren 22ra arte entregau ahal dira liburutegian; marrazkiak, barriz, abenduaren 4ra arte ludotekan.

Haurrentzako X. Marrazki Lehiaketan Lemoan bizi edo ikasten daben 12 urte baino

gitxiagoko umeak hartu daikie parte. Gaia librea da, baina neguagaz lotuta. Sari banaketea abenduaren 17an izango da. Lehiaketara aurkeztutako marrazki guztiak udaleko web orrialdean argitaratuko dira.

Ipuin lehiaketan parte hartzeako, barriz, 18 urte baino gitxiago euki eta Lemoan bizi edo ikasi egin behar da.



## DUNBA

# Dimatik Oriora

### Dimako Ugarana eskolako ikasleak

Aupa Begituzaleok! Dimako LH6ko lagunak gaituzue. Urri bigarrenaren 7, 8 eta 9an Orioko Txurruka aterpetxera joan ginan. Bertan, oso ondo pasatzeaz aparte, ekintza ugari egin genduzan. Dunban ekintza horreen barri emotea da gure asmoa: Pagoetako ekosistematik ibilaldia, Big Surf eta Kayak tailerra, Orio ezetuten eta Mollarrira egindako ibilaldia, hain zuzen.

Lehenengo ekosistema bat zer dan ikasi genduan. Ekosistema bat, lur eremu edo ingurune bateko bizidun eta bizibakoan multzoa da, eta euren arteko erlazinoak. Edo beste era batera esanda: leku bakotxeko inguruak eta han bizi diran bizidunak osotuten daben sistemeari deitzen deusagu ekosistema. Ekosistema mota desbardinez egin genduan berba: ekosistema tropikala, basamortuko ekosistema, ekosistema urtara, basoko ekosistema, ekosistema alpinoa, sabanako ekosistema... Basoko ekosistemen barruan, esaterako Euskal Herrian bertan, ekosistema mota desbardin asko daukaguz, esaterako, artadiak, haresduiak, hareatzak, labarrak, padurak, ibarbasaok eta pagadiak

dagoz. Pagoetako Parke Naturalaren barnean, haresduiak, ibarbasaok, larreak eta pagadiak topau daikiguz besteak beste. Hona hemen honeetariko baten deskripzioa.

Haresdua: Euskal Herriko baso gehienak mota honetakoak ziran gizakia basoak ustiatzen hasi zan arte. Gaur egun, batez be, babestutako guneeetan aurkitu daikiguz. Zugatz mota nagusia haretza da eta beragaz batera zumarra eta astigarra hazten dira. Itsas mailatik 600 metro inguruko altueraraino zabaltzen dira haresduiak. Udabarrian kukuaren kantua entzun daikigu baso honeetan, eta lehenengoz entzuterakoan, boltsikoan txanponak eukitea komeni izaten da. Haresduietan, adar batetik bestera saltoka kolore gorriko katagori zolia ezkur bila ikustea ohikoa da. Basoaren behealdean aldiz, azagari azkarrak erne jarraituko dabez zugatzten goikaldean gertatzen diran mobimentu guztiak.

Behin ekosistema bat zer dan eta bertan bizidunak eta erlazinoak aztertu ostean baso motak ikusi genduzan, baso koniferoak, baso hostozabalak eta baso mistoak.

Bestetik, esan behar dogu bizi modu aldaketakaz eta aurrerapen teknologikoen eraginez Euskal



Dimako eskolako umeak.

Herriko antxinako lanbide batzuen desagerpena eta euren aztamak ikusteko aukerea be izan gendula; esaterako, karobiak, ikatz txondorrak, burdinolak, garraio motak...

Parkeko Sagastizabal baserria be ikusi genduan, leku zoragarria! Eta amaitzeko, esan, Pagoeta, balio natural eta kultural handiko eremua dogula; eta egun Parke Naturalen babesa daukala, izan be, gizakiok natureagaz dogun hartu-emona asko aldatu da azken urteetan eta gaur egun, giza jardueren eraginez,

natura mehatxupean dago, arriskuan. Ahalegindu gaitazan danok geure inguruak jagoten.

Bigarren egunean, goizean, uretako ekintzak egin genduzan: Kayak eta Big Surf. Gehien gustau jakuzan ekintzak izan ziran. Eta holakoetan betiko moduan, oso labur egin jakun kirol honeei eskeinitako denporea. Guretzat nobedade handia izan zan Big Surf-a egitea, tabla handi baten gainean 7-8 persona igo eta zutunik arraunari eragitea. Dana dala oso



ondo pasau genduan. Hurrengorako be gogoz.

Bigarren eguneko arrastian, Orio ezetuten joan ginan. Udaletxe aurreko pergolan arrastiko otordutxoa egin eta San Nikolas eleizearen ondoan dagoan Oteizaren piedadea ikusi genduan, gure eskultore, pentsalari, idazle eta artista handiari bere sorterriak eskeinitako espazioa. Eta handik, Oria ibaian traineruak entrenetan animau eta gero tirolinetara joan ginan olgetan.

Hirugarren egunean Mollarrira egin genduan ibilaldia, Orio eta Zarautz aldeko mahastietan zehar ibili ostean itsas labarretara egin genduan salto, Mollarrira, antxina burdina eta basoko materialak (egurra, ikatza...) itsasontzietara kargetako erabiltzen zan kargaderora. Leku ikusgarria! Gipuzkoakoa ez ezik ia Euskal Herriko kostalde osoa ikusteko aukerea emoten dauan lumuturra.

Oso esperientzia polita izan zan ingurune zoragarrian, barriro errepikatze modukoa. Bildur gaua kenduta!

## AGENDEA

## ZEMENDIAK 17

## AREATZA

19:00etan, aurrekontuen batzara. Kultura, Kirola eta Aisia. Pleno Aretoan.

## IGORRE

18:00etan, Gabonetako Olentzero Batzordea batuko da Kultur Etxean.

## LEMOA

Ganzabalekoak eta eskolako ikasleak alkarregaz mendira. 19:00etan, CD Lemoaberrik antolatuta, nesken lagunarteko futbol partidua Arlonagusian.

## ZEANURI

19:00etan aurrekontuen auzo-batzara, Otzerinmendi eta Uribe. Uribeko txokoan. EH Bilduk antolatuta.

## ZEMENDIAK 18

## ARANTZAZU

18:00etan, ipuin kontalaria, *Rol jokoa*. Erabilera aritzeko lokalean.

## AREATZA

19:00etan, aurrekontuen batzara. Garapen Ekonomikoa eta Urigintzea. Pleno Aretoan.

## LEMOA

Garagardo dastaketa tailerren izena emoteko epea zabalik. Udaleko Kultura Zerbitzuan.

17:00etan, "Aniketa fisioa hirugarren adinean" berbaldia Jubiladuen Etxean.

20:00etan, Garbiñe Uriarte, Izaskun Martin eta Soraya Lizundiaren "Nepal, ametsetatik errealitatera" berbaldia eta proiektzioa. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

## ZEANURI

19:00etan aurrekontuen auzo-batzara, Alizusta. Txokoan. EH Bilduk antolatuta.

## ZEMENDIAK 19

## IGORRE

20:00etan, zine kluba *The Bling Ring* (Sofia Coppola, 2013). Kultur Etxean.

## LEMOA

19:00etan, Udalak antolatuta, "Biomekanika tximindularizan" berbaldia Jubiladuen Etxean.

## ZEMENDIAK 20

## AREATZA

18:00etan, Emakume Foroak antolatuta, Brigit

Vanderbekerren *Muskuluak afaltzeko* liburuari buruzko tailerra Emakumeen Gelan.

## ARTEA

15:00etan, Arteko Eskolan Musika ere bai! Jardunaldi irekiak, eskolan; 19:30ean, Luis Iruarizaga korala, Musika Eskola eta Arteko umeak, kontzertua parrokiari; 21:30ean, rock kontzertua Batzokian.

## BEDIA

Hilaren 29ra arte, ipuin eta bideo ez sexistai buruzko erakusketa.

## LEMOA

20:00etan, Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta, eskupeleta partidua frontoian. Apustuak egiten ikasteko aukerea eta irabazlearentzako afaria.

## ZEMENDIAK 21

## ARANTZAZU

12:30ean, globo moreak banandu eta Marba



## II. Rokupa Fest Igorren hilaren 21ean

Igorreko Kiñu Gaztetxeak II. Rokupa Fest jaialdia antolatu dau zemendiaren 21erako, Gaztetxea okupau ebela urte bi beteten dira-eta. Bazkaria 14:30ean izango da Gaztetxean. Bertan parte hartzeako tiketak zemendiaren 18ra arte erosi daitezke Kukuma, Herriko Taberna, Gau Lora eta Txaparro tabernetan. 17:00etan poteo musikatua egongo da herritik zehar Kiñu Gaztetxetik abiatuta.

Gauean The Jelaskors taldeak Axular Herriko Tabernan joko dau 22:00etan. Gero, D-Tox Distorsion Toxicak 23:15ean joko dau Kukuman. Hurrengo kontzertua Blaster M-k emongo dau Rugby Tabernan 00:30ean, eta amaitzeko, Vinagre de Modernas taldeak Trokan eskeiniko dau bere musikea 01:45etik aurrera. Lehendakari Agirreko tabernak eskertu gura izan ditue antolatzaileak.

Morearako banderolak egin plazan.

## AREATZA

18:30ean, *Areatzako Emakumeen memoria eta bizi esperientziak* dokumentalaren proiektzioa.

18:00etan Garagardo kata. Bost garagardo desbardin dastatzeko aukerea eta 20:00etan Charlie Cosh taldearen kontzertua The Quiet Corner-en.

## IGORRE

08:20etan, Igorreko Jubiladua antolatuta mendi ibilaldia. Dimarako autobusa hartzeako bidean.

18:00etan, Les Rassistes-en *Martinak bere istorioa aurkitu zueneko* antzerkia. Kultur Etxean.

## DIMA

10:00etan Umorez bizi ikastaroa.

## LEMOA

13:00etan, herriko taldeak eta banakoak puntu morea osotu futbol zelaiari.

17:00etan, zumba maratoia kiroldegiko kantuan.

## ZEMENDIAK 22

## ARRATIA

Marba Morea. 12:00etan hasikorea Igorreko Kultur Etxeko parkean; 13:30ean amaiera Bediako plazan.

## ARTEA

17:00etan, *Las mujeres de verdad tienen curvas* pelikula. Ondoren kafe-foruma Ludotekan.

## IGORRE

17:00etan ikusle guzientzako zinea *Pinocho y su amiga Coco*. 19:30ean *Marte* filma Kultur Etxean.

18:30ean Emaik antolatuta dokumentala Kiñu Gaztetxean *La OTAN el brazo armado del imperio*.

## LEMOA

08:00etan, Ganzabalek antolatuta, mendi urtekera. Izen emotea zemendiaren 18an, 20:00etatik 22:00etara Ganzabaleko lokalean.

10:30ean, Harrobi Futbol Klubak antolatuta, futbol jolasak Bubbelsoccer eta beste batzuk Arlonagusian. 13:00etan, Mendieta Herri Kirol taldeak antolatuta, herri-kirol erakustaldia Elizondan. 16:00etan, Saskibaloia partidua (andrak) Arraibin.

## ZEANURI

Zeanuriko Olabarri errota eta burdinolari bisitea. Gorbeiko Parkeak antolatuta.

## ZEMENDIAK 23

## AREATZA

19:00etan, aurrekontuak egiteko Batzar Orokorra. Udaletxeko Pleno Aretoan.

## ZEANURI

19:00etan aurrekontuen auzo-batzara, Plazea. Kultur Etxean. EH Bilduk antolatuta.

## ZEMENDIAK 24

## IGORRE

18:00etan, ipuin kontaketea udal liburutegian 5 urte eta 10 urte bitartekoentzat.

## ZEANURI

19:00etan aurrekontuen auzo-batzara, Asterria. Txokoan. EH Bilduk antolatuta.

## ZEMENDIAK 25

## ARANTZAZU

12:00etan, indarkeria matxistaren kontrako konzentrazioa plazan.

## AREATZA

19:00etan, zineforuma *Río Salvaje* (Elia Kazan, 1960). Hizlaria: Jose Angel Rebolledo.

## ARTEA

17:00etan, globo moreen banaketea eta konzentrazioa.

## DIMA

18:00etan, Marba More Txikia Dimatik Igorrera.

## IGORRE

19:00etan, indarkeria matxistaren kontrako konzentrazioa. Kultur Etxe parean.

## LEMOA

20:00etan, Pabi Lopezen "Brasil, Ruta Coqueiros, Chapada Diamantina y Estrada real de bicicleta" berbaldia eta proiektzioa. Jubiladuen Etxean.

## ZEMENDIAK 26

## IGORRE

19:00etan, Jai Batzordearen batzara Kultur Etxean.

## ZEANURI

19:00etan aurrekontuen auzo-batzara, Alizua,

Ipiñaburu eta Undurruga. Alizua txokoan. EH Bilduk antolatuta.

## ZEMENDIAK 27

## IGORRE

20:00etan, Txalo Produktzioak-en antzerkia *Datorren urtean hobeto* Lasarte Aretoan.

## ZEANURI

17:30ean, Beldur Bank Arratia Lehiaketako sari banaketea Kultur Etxean.

## ZEMENDIAK 28

## ARANTZAZU

20:00etan, antzerkia *Ez gara Palestinaz ari*. Kultur Gunean.

## AREATZA

20:00etan Blues Morning Singers taldeak CDaren aurkezpena The Quiet Corner-en.

## ARTEA

21:30ean, Blues-soul kontzertua The Bilus Moon taldeagaz Ekomuseoan.

## IGORRE

19:30ean Luis Iruarizaga abesbatzaren kontzertua Musika Eskolako ikasleak batera. Kultur Etxean.

## LEMOA

11:30ean, familientzako tailerra. "Umeen hizkuntza prozesuan laguntzeko eta seme-alabak euskeraz berba egin, jolastu eta abesteko aukerea izateko". Izena 20ra arte, udaletxean edo eskolan emon.

## ZEMENDIAK 29

## IGORRE

17:00etan ikusle guzientzako zinea *Ups! ¿Dónde está Noe?* 19:30ean *Amama* filma Kultur Etxean.

## ZEBERIO

Bertako Produktuen XVI. Azokea plazan. Frontoian, Euskerearen Eguna ospatuteko antxinako jokoak eta puzgarriak.

20:00etan, zinea *Antonia*. Plazako ermitan.

## ZEMENDIAK 30

## AREATZA

17:30ean, Paula Casaresen berbaldia "Euskera, entra un idioma en tu casa" eta 19:00etan, "zuk daukazu giltza". Jubiladua umeai ipuinak kontetan tartean.

## ARTEA

19:00etan, Musika Eskolako kontzertua ludotekan. Ondoren kopaua umeentzat.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## SALGAI

Bogaboo-a eta haska zuria saltzean dodaz. Deitu 679 909 869 telefonora.

## SALGAI

Relax modua daukien narruzko sofa eta besaulkia saltzean doguz. Deitu 653 727 047 telefonora.

## DANERIK

## BEHAR BILA

Persona nagusiak eta haurren zaintza edo etxeko beharrak egiteko laguntza behar dozu? Deitu konpromiso barik. Grisel 678 104 166.

## APARKALEKU ITXIA

Karabanak, autokarabanak... gordetzeko aparkaleku itxia, pabilioi baten barruan. Plaza zabalak, zenbatuak, bakotxa aseguru eta alarmeagaz. Ur lohiak garbitzeko komuna. Arratian. 671 549 015 (Jon).

## ZERAMIKA IKASTAROA

Zeramika ikastaroaren hasikerea urri bigarren! Asteazken ordu biko klaseak,

arrastietan. Interesautaz bazagoz, animau eta deitu 615 731 182 telefonora (Saioa).

## BEHAR BILA

Etxeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Kotxeduna. Dimoztarra. Telefonoa 634 438 725.

## BEHAR BILA

Delineazino lanak egiten dodaz. CAFen esperientziaduna. Ingeniaria. Dima. Telefonoa 635 207 386.

## IRAKASLE BILA

Ume batez ingelesez berba egiteko nonoren bila gabiz. Interesatuak deitu 605 755 604 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Martinak bere istorioa aurkitu zueneko* antzezlanerako.**

Angel Larrea (Galdakao)  
Josune Atutxa (Dima)



**Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Datorren urtean hobeto* antzezlanerako.**

Ruben Hernandez (Areatza)  
Igor Menika (Arantzazu)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13


urte eta

ehundaka

lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Nagkeria. 2.- Ilara. 3.- Bostehun erromatar. Betekada adierazoten dau. Bokala. 4.- Euzko Langileen Alkartasuna. Malda, aldapa. 5.- Soldata. Musika nota. 6.- Lapikoko. 7.- Galioa. Bokala. Alde, ospa. 8.- Erdiko bokala. Eguzki. Bat erromatar. 9.- Eskribau.

### GOITIK BEHERA

1.- Konsonante bat. Hauts egin. 2.- Aluminioa. Itxi. Oxigenoa. 3.- Basamortu. Errepetiduta, kontuz. 4.- Birritan, irakitearen onomatopeia. Burla. 5.- Kutxa. Bokala. Iridioa. 6.- Andrazkoai deitzeko hotsa. Debalde. Bokala. 7.- Bokala. Durangaldeko auzo bat.



Topau xakeagaz zerikusia daukien zazpi gauza.

M	A	H	I	A	L	U	J	I	A
E	D	O	Z	I	K	O	S	P	R
R	G	A	B	R	A	D	E	R	O
R	O	L	U	E	H	O	P	U	M
A	S	F	A	Z	I	L	U	N	E
Z	E	I	K	A	A	H	D	U	R
E	S	L	T	X	E	L	I	B	A
M	P	A	S	T	O	R	D	I	J
B	E	R	R	E	G	E	A	I	S
O	R	B	U	M	I	A	D	E	A
G	R	A	U	J	O	L	R	E	N
A	H	O	K	A	R	U	T	I	L
D	O	G	U	R	Z	A	Z	O	X
A	E	R	R	O	T	T	F	A	R
K	O	K	O	L	E	T	X	I	N

# AKI MI KO

Zorrozkiilo



umaan moda  
**seim**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnos. 94 631 92 96 • seimmoda@hotmail.com

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 Telefonos: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
IGORRE

LEHENENCO URTEKO KUOTAN  
%15eko DESKONTUA  
ASEGURUAK  
**basolo Emaldi**  
FARMASIA ADMINISTRAZIOA, S.A.  
Abokatuak  
620. 57.86.04  
aslerabasolo@hotmail.com  
Bilbao-Zeanuri

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**Egin zaitez Begitu lagun!**

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...  
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGA, KONTABILITATEA  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 631 92 06

Pinturas Aratia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA AUTOSKOLA**  
karneta eskuratzeko zain orduz  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: unozakul@euskatel.net

## AMAIA SAGREDO GOROSPE

## "Gaur egungo errealidadeari kritika egiten deutsagu laster argitaratuko dan *Eztanda* diskoan"

Amaia Sagredo Gorospe Dimako Nik Khaos rock taldeko abotsa da. Irakasle eta logopeda moduan ateraten dau bizimodua, eta Siberia FM irradian be egiten dau lan "Airean" musika programan. Bere zaletasunen artean, boxeo praktiketea dago.



### Erredakzioa

#### Noz hasi ziran musika munduan? Zein izan da zure ibilbidea?

Oso txikitatik hasi nintzan. Zazpi urtegar erregalau eusten lehenengo gitarrea eta ordutik hona, beti ibili naz musikea egiten. Hemeretzi-hogei urte neukazanean Lorebeltz taldean sartu nintzan. Talde honek rock alternatiboa egiten eban metal pintzelada batzukaz. Bi edo hiru urte egon nintzan han.

Gero, Nik Khaos-eko taldeki-deak ezetu nebazan, eurak taldean urtebete eroienean. Egun baten topo egin genduan Igorren eta hasi ziran esaten neskaren abotsa sartutea gura ebela. Azkenean, ensaio batera joateko probetako esan eusten eta holantxe egin neban. Probau genduan eta ordutik hona eurekaz nago.

Taldean gizonetako abotsa be badaukagu Inigo Mintegirena. Gugaz batera, Hodei Gonzalezek eta Migel Monroyk gitarrea jotzen dabe, Ugaitz Lekuek bateria eta Patxi Izak bajua.

#### Zeintzuk dira jo dozeuzan kontzerturik inportanteenak, sariak, diskoak eta abar?

Lorebeltzen nengoanean, Euskadi Gazteako Maketa Lehiaketako publikoaren saria irabazi genduan eta kontzertu polit batzuk jo genduan; SAgaz (Soziedad Alkoholika) esate baterako. Disko bat be atera genduan. Gero Nik Khaos-egaz be hainbat kontzertu potente jo doguz. Adibidez, orain dala gitxi Bedian Kaotiko taldeagaz jo genduan. Bigarren diskoa aterako dogu laster, Durangoko Azokarako kalean egongo da.

Mikel Kazalis Anestesiako gitarra-teagaz grabau dogu diskoa, berak produzidu deusku eta sano pozik gagoz, emoitzea ona dala uste dogulako. Hamahiru abesti dagoz diskoan, gaur egungo errealidadea eta politika sistemen inguruan sano modu kritikoan berba egiten dabenak. Diskoa *Eztanda* deitzean da. Kantsauta gagoz mila gauzagaz, hasarre eta azkenean, amorr horrek "eztanda" egiten dau.

Disko honetako "Udazkena" abestia andrai zuzendutakoa da. Batez be bikotekide matxista, tratu txarrak emoten dauana edota gizarte matxista batetik ateraten dabizen andra horreentzat guztientzat da.

#### Zelan definituko zeunke Nik Khaos-ek egiten dauan musikea? "New metal" edo "metal alternatiboa"?

Nire ez jata gustetan musikea definitutea, ze musikea inoz ez da zurruna, beti dago malgutasun apur bat. Dana dala, esango neuke lehenengo diskoa, *Argiak lekuri ez duenean* izenekoa, nahiko "metaleroa" dala.

Ordutik jente barria sartu da taldean eta aldaketak egon dira. Orain estilo asko nahastuten doguz. Esango neuke rock metala egiten dogula baina lehen baino rockeroagoa. Estilo nahasketa handia dago. Beste batzuen artean, Kauta, Dut, Kuraia eta Anestesia taldeen eragina daukagu.

#### Nik Khaos-ek aitatu dozeuzan talde horreek ditu erreferente, zeuk be bai? Zeintzuk dira zure erreferenteak, gehien gustetan jatzuzan talde edo abeslariak?

Lehen aitaturakoez gainera, niretzat Latzen oso inportantea da; beti entzun izan dot eta jarraituten dot entzuten, ez naz kantsetan.

Eta badagoz asko gustetan jatzuzan rockera batzuk be. Courtney Love esate baterako, edo Rose Mazzola "Casper" The Distillers taldeko abeslaria. Taldea beti gustatu jata asko eta jarraitu egiten dot. Abeslaria niretzat erreferente bat da. Euskal Herri mailan, Zea Mays-eko Aioraren abotsak zoratu egiten nau, asko gustetan jata, eta On taldeko abeslaria be asko gustetan jata. Indarra dauka, ganorea eta ikusten jato taldea aurrera botateko adore handia daukala.

#### Eszenarioan zelan sentiduten zara?

Urten aurretik beti egoten naz oso urduri eta dana arin pasau daitela eta lehenbailehen bajatu gura izaten dot. Baina gero, eszenalekuan nagoanean, piloa disfrutetan dot eta ez dot gura izaten amaitutea. Adrenalinea topera igoten jata.

#### Zuen publikoa zelangoa da? Edade guztietakoa ala ge-

#### hienak adin tarte batekoak dira?

Adin desbardinatuko publikoa daukagu. Kontzertuetan oso jente gaztea egoten da, baina baita nagusia, erdikoa... Adin guztietakoak. **Zelan ikusten dozu rockaren egoerea Arratian?**

Arratian talde asko dagoz eta influentzia desbardinak daukiez. Estilo asko nahastuten dira. Hor daukaguz Eskean Kristö, MG, Harrobi, Bidean Galduta...

#### Rock gogorraren munduan neska gitxi dagoz.

Bai. Edozein kontzertutan, jotzen daben ia danak mutilak izaten dira. Nik gurako neuke nesken presentzia handiagoa izatea, uste dodalako andrak indar eta potentzial handia daukagula rock gogorrean. Nire ustez rock munduan presentzia gitxi daukagu androk, gizonak indar eta presentzia handia daukielako, eta ez deuskuelako ixten guk gurako geunken moduan aterate. Hori dala eta, sano neska gitxi sartuten gara rock taldeetan. Matxismo apur bat badago musika munduan eta nik sentidu

egin dot. Ez da argi ikusten dan gauza bat, baina egon badago. Nik uste dot hori izan daitekela errazoi bat, neskai atzera egitea eragiten deutsena. Baina egin behar doguna da ausartu, sartu musika mota honetan eta erakutsi daukagun indarra.

Banda baten gizonak jotea normalizauta dago. Andrazkoak egotea banda baten... Nik uste gizon batzuk bildurtu egiten dirala androk hartzean gabizen indarra ikusita.

#### Boxeau be egiten dozu. Indarra eta adrenalinea sentiduteko?

Isa Rodriguez boxeatzaila oso lagun ona dot eta berak animau ninduan orain dala urte pare bat boxeoan egiteko. Hori dala eta, bere taldean hasi nintzan ikasten. Baina gero itxi behar izan neutsan, lana, ikasketak... ez nintzalako danera heltzean. Orain dala gitxi bueltau naz, eta barriro hasi naz boxeoan. Kirol moduan praktikatzen dot eta asko gustetan jata. Hor be, rock gogorrean legez, neska gitxi gizonetako mundu baten.

Gratiasio Herri Ikastetxeak

# Gure

ikastetxeak

Euskalduna

kalidadezkoa

herrikoa

<b>J.B. Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 673 62 37 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre